

TTiPi-TTAPA

1987.ko Abendua

21/22 zenb.

DAKOITZA
BIKOTEA
JNDARRA
MASA
ERREPRESIOA
NOR LEHENDABIZI?
GAZKIA
EZ DAKIT
GUREI
DENOK
BERDIN

NON ZER

HERRIETAKO BERRIAK

Bera 2
Igantzi 5
Lesaka 6
Etxalar 8
Sunbilla 10
Doneztebe 11
Goizueta 13
Ituren 14
Zubieta 16
Zugarramurdi 18
Baztan 20
AEKtarrak Iparraldean 21

GAIAK, ELKARRIZKETAK,...

Diru kontutan..."Boltsa" beheko errekan 22
BUP Ikastetxe berria, nun zertaz 25
Osasun Mentala 26
Zer da HIESa? 29
Euskara, irakaskuntza eta udal gestioa.....30
Mugimenduak ez du zahar eraztan..... 33
Guk gurea 34
Bortzirietako Euskara Zerbitzua 36
1992ko Urriaren 12an PILARIKA eguna 38
Baztango harana eta bere folklorea 40
Eskopeteroak gizon hutsak dira 42
Joan zen uda eta negua heldu da... 45
Zugarramurdi 1608. urtean 46
Zorionak Almandozko Manueli 49
Honelakoak bagenekizkien 50
Hara!.....51

OLERKIAK, IPUINAK, KOMIKIAK,...

Itsu zaharrari izuak galdetzen zion 52
Noizean behin beharrezko eta... 53
Erne nengoelarik egindako ametsak 54
Olerkiak (Joakin Balentzia) 56
Hemen da negua 58
Errezetak 60
Letra zopa 62
Etxeko ormei, Baratzeko lorea 64

BERA

ASTE KULTURALA

Azaroaren 20ean eman zitzaien hasiera Udalaren eta Printzipe de Vianaren laguntzarekin Gure Txokoa elkarteak antolatutako Kultur Astea osatzen zuten ekintzei.

Hasiera zinema emanaldi batekin eman zitzaion "Ehun Metro" filmarekin hain xuxen ere eta oso osorik euskaraz. Ortziralean, antzerkia ikusteko aukera izan genuen, "Legaleon T" antzerki talde irundarrak "Quecas" lana antzestu zutelarik, ordu beteko iraupenekoa, gaztelaniaz eta helduentzat. Larunbatean, berriro antzerkia, "Tatan Club" talde hondarrabitarrak eskeinirik eta euskaraz. Larunbaterako, Rock jaialdia antolatua zen, baina ezin ospatu eta gibeltzea erabaki zuten. Eta azkenik, igandean "Lurraren Eguna" izenburupean, euskal kutsu duten ospakizunak egin ziren.

LURRAREN EGUNA

Hain arrakastatsu gertatu zen KULTUR ASTEAREN egintzen artean ospatu zen lehenengo aldiz "lurraren eguna".

Goizeko 10 t'erdietan Bortziri-etako I. Gazta lehiaketa ospatu zen, 24 gazta aurkeztu zirelarik. Epaimahaia Jose Antonio Garcia, Joxe Mª Andueza, Txomin Igantzi, Roman Goikoetxea, Ines Gorraitz, Vicente Iruntzo eta Miguel Sarrateak osatzen zuten. Lehendabiziko hiru sariak Berako Landatxipiko Mª Jesus Etxebesteri eman zioten. Laugarren sariari accesit bat eman zioten, Etxalarko Urtzalenea baserriari hain xuxen ere.

Arratsaldean subasta egin zen eta lehendabiziko saria irabazi zuen gaztaren erdiarengatik 2000 pzta. ordaindu zuten. Bigarrenarengatik 1500 eta hirugarrenarengatik 1000 pzta. Arratsaldeko 3 t'erdietan eta Altzateko kalean, Nafarroako Artisau talde batek bere lanaren erakusketa bati eman zioten hasiera. Bertan parte hartu zutenen izenak hauek dira: Agustin Antxordoki (Igantzi) saskigintzan; Ana Koxkolin (Bera) zumezko saskigintzan; Zesareo Soule (Arizkun) harrigintzan; Txaro Laita (Zirauki) buztingintzan; Eukeni Kallejo (Galar) Lakabekoak (Lakabe) eta German Urra (Lizarra) zeramika; Joxe Lanz (Bera) eta F. Martin Aiestaran (Elgorriaga) artezko burdin-lantzean; Kloxka (Bera) eta Dionisio Unanua (Gartzain) larrugintzan; Miguel Angel Sanz (Iruinea) esmaltean; Joxe Ramon Tabar (Iruinea) beira sailan; Maika eta Gabriel (Arbaitza) zilarrezko bitxiak; Anda, anai-arrebak (Bakaikoa) argizaiolak, kutxak eta zurezko altzariak; Miguel Angel Mendiburu (Azpilkueta) eta Luis Madariaga (Arantza) zurezko tailan; Santiago Hualde (Zubieta) kaikuak; Marga Irazoki (Alkaiaga) macrame; Mª Isabel Larrinaga (Arraiotz) gakorratzean; Kastora Agesta (Etxalar) hirukintzan; Mª Luz Rozas (Bera) erra ziriak; Mª Jesus Igantzi (Bera) taloak; Luis Olaetxea (Lesaka) sagardogintzan eta Asun Teiletxea (Bera) ehundegian.

II. GURE TXOKOA IPUIN LEHIAKETARAKO EPEA IREKI DA

Eguberri inguruan, Gure Txokoa elkarte beratarrak, dagoeneko ohitura bihurturik dauden euskarazko bi ipuin lehiaketa garrantzitsu antolatzen ditu.

Aipatutako bi lehiaketak batipat gure eskualdeotan giro euskalduna bultzatzeko egiten dira, baita euskaraz idatzitako lanei laguntza eskeintzeko ere. Gaur aurkeztuko dugunak "II. Gure Txokoa Ipuin Lehiaketa" izena darama eta beronen oinarriak hauek direla: 1. lehiaketa, Baztan eta Bidasoa, Hondarrabia, Irun eta Oiartzun barne-eskualdeetan bizi diren 16 urtetik gorakoentzat da. 2. Edozein gai euskaraz idatzia eta argitaratu gabea badago onartua izanen da sariketara bidaliz gero.

Lanen egiturari dagokionez, makinaz idatzitako hiru folio baino gehiagokoak izan beharko dute.Idazle bakoitzak bi ipuin bidal litzake. Lan guztiek, egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa beste orri batetan idatziak eraman beharko dituzte. Lanak azal batetan sartuta, abenduaren 18a baino lehen helbide honetara bidaliko dira: Gure Txokoa Elkarte-kultur saila, Eztegara Ibilbidea, 31780 Bera-Nafarroa.

Lehiaketa honetan irabazle gertatzen denarentzako saria 10.000 pezetakoa eta oroigarria izanen da. Epaimahaiak nahi badu "Accesit" eman dezake. Sari banaketa bestalde, datorren urtarrilaren 3an, eguerdiko 12etan eta Iamotenean izanen da.

BORTZIRIKO IGERIKETA TXAPELKETA

1987ko Irailaren 26ean, larunbata.
Lekua: BERAko igerilekuan
Ordua: Goizeko 11tan
71 igerilari

EMAITZAK:

7-8 urteko neskak: 24m. Crol:

1. Mirian Erkizia 32"
2. Igone Irazoki 35"
3. Amaia Ruiz 36"

7-8 urteko mutilak: 25 m. Crol:

1. German Terreros 20"
2. Jokin Rodriguez 22"
3. Iker Ordoki 25"

7-8 urteko txandaka mixtoa: 4x25 m. Crol:

1. Saioa Ataun, Alaitz Rekondo Iker Ordoki, German Terreros
2. M. Susperregi, O. Garmendia Patxi Amado, Mikel Zapirain

9-10 urteko neskak: 25m. Crol:

1. Oihana Semper 19 "
2. Maider Gorria 23"
3. Naihara Capdequi 25"

9-10 urteko mutilak: 25m. Crol:

1. Aritz Perez 19"
2. Asier Saragueta 20"
3. Iñigo Sarobe 20" 5

9-10 urteko txandaka mixtoa: 4x 25m. Crol:

1. Jaione Ruiz, Idoia Guillenea Javier Yanci, Mikel Etxegaray
2. Leire Portu, Amaia Bikuña Kemen Pumar, Raul Romero.

11-12 urteko neskak:50m. Crol:

1. Yolanda Romero 43"
2. Estibaliz Urra 45"
3. Estitxu Arozena 48"

11-12 urteko mutilak: 50 m. Crol:

1. Felipe Saragueta 41"
2. Javier Etxegaray 43"
3. Mikel Iriarte 43" 50

11-12 urteko txandaka mixtoa: 4x25 m. Crol:

1. Maite Lekuona, L. Tapia Gontz. Errandonea, Mikel Ruiz
2. Karm. Rekondo, Rak. Garrido Victor Romero, Ism. Fernandez

Berako Udaletxeak eman zituen 30 medailak, Anttonek (idazkaritza) txapeldunen artean banatu zituen.
Antolatzen du: Bortziriko Kirol komiteak.
Oso giro alaia eta jende aunitz bildu ginen Berako igerilekuan.



Bortzirietako igeriketa txapelketa.

BERAKO OLENTZERAREN EGUNEAN PARTE HARTZEKO ARAUAK KALERATU DIRA.

"Gure Txokoa" elkarteak, Olentzeroren egunean abenduaren 24ean parte hartuko duten taldeentzat oinarrizko arauak kaleratu ditu.

Ohitura berritu eta berreskuratu denez, konpetitibitatea sortzen duen lehiaketarik ez da egin. Hala ere "Gure Txokoa" elkarteak talde bakoitzari 2.500 pzta. emanen dizkio.

Hamasei urtetik beheragoko taldepartaideek, errandako egunean, arratsaldeko 3 t'erdietan Udaletxeko enparantzan Olentzero kanta eta euskal gabon kanta bat abestuko dute; gero, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

Arropa, betiko ohitura jarraituz izanen da eta talde bakoitzak Olentzeroa errepresentatua eramanen du, nahiz haur batekin, nahiz panpiña baten bidez.

Abenduaren 18a baino lehen, talde bakoitzaren arduradun bat

Alkaiagako zelai horretan ospatuko dugu aurten ere, Maiatzaren 28 eta 29an AEKelarre 1.988

Iamoteneara, izena ematera eta taldepartaideen adina erratera joanen da, bakoitzak herriko zein alderditik joan behar duen jakiteko.

"Gure Txokoak", adinaren arabera aurretik abisatuko du nora joan daiteken talde bakoitza. Hau jakinez, beratar guztiak Olentzero ikustera zuzen-zuzenean abiatuko gara.

NOLA DAGOEN BARIANTEAREN KASUA

Diputazioak aurkeztu du bere proiektua, denetan garestiena hain zuzen ere, eta bidali du Lesakako Udaletxera hauzotarrekin eztabaidatzeko.

Proiektu honetan aipatzen denez bariantea, Arkaitza harrobi paretik hasiko litzateke eta "Fundiciones" lantegiko aparkalekuaren atzetik zubi bat egin eta zuzenean 300 metrotako tunel bat Bezerroko mehatzulotan bukatuz. Handik bertze zubi bat egin eta Laminaziotako errepidetik jarraituz Zalain auzoaren gibeletik eta Verkolen gainaldetik irtengo litzateke.

Lesakako Udaletxeak eztabaidatuko du arazo hau Alkaiagako auzotarrekin, ahalik eta kalte guttien jasan dezaten. Aipatu behar kasu hau supramunizipala dela eta Nafarroako Diputazioa hagitz interesaturik dagoela proiektu hau aurrera atera dadin.

POLIKIROLDEGIA

Aspaldidanik Berako Kirolzaleek eskatzen zuten Polikiroldegi bat herrian. Aunitz eztabaidatu ondoren badirudi Nafarroako Gobernuak eta Udaletxeek konpromezu hartu dutela polikiroldegia aintzinera ateratzeko.

Horien presupuestua 100 milioi baino gehiagokoa da, hauetatik % 75a Nafarroako Gobernuak ordainduko luke eta herriko Udaletxeak gainontzekoa zein izanen litzateke leku egokiena Polikiroldegia egiteko? Badaude bi aukera: Bata Miljar taberna eta Lanbide-Eskolako aparkaleku tartean dauden eremuan eta bertzea berriz orain futbol zelaia dagoen lekuan.

Badirudi lehenbiziko aukera, Miguel Angel Garaikoetxea arkitektoak egindako txosten batek dioenez, ez zela batere egokia izanen zeren eta lan handia egin beharko litzateke.

Bertzea berriz merkeagoa izanen litzateke, baina bigarren posibilitate hau aintzinera ateratzeko, bertze futbol zelai bat egin beharko litzateke. Hau ere non egin daitekeen pentsatu dute. Bi aukera hauetatik bat bereizteko hilabete honetako 10ean bilkura bat izan zen Udaletxe eta Nafar Gobernuko ordezkarien artean.

Nafar Gobernuak 10 milioi eman omen dizkio aintzinetik.

NON BIZI GARA

Joan zen igandean abenduak 6. eguna betetzen zuen. Benetan egun zoragarria etxetik ateratzeko. Jende aunitzek pentsatu genuen ba hortakoz Iparraldea leku aproposa izanen litzatekela. Zein izan zen gure sorpresa eta amorrazioa gendarmeak boltarazi gintuztenean, inolako arrazoirik eman gabe.

Holako jokaerak adierazten digute nolakoa den Europako "demokrazia" batez ere Frantziakoa. Euskaldunei gure anaiekin bizitzen galerazten digun demokrazia.

Zoritxarrez ez da lehendabiziko aldia holako kasuak gertatzen direla mugetan. Badirudi inguru horietako jendea ohitua dagoela holako arazoak jasatera, joera honek duen inportantziaz jabetu gabe.

Arazoa hagitz larria dela pentsatzen dut. Nor dira gure herrietan zehar ibiltzen galerazten diguten urdinez jantzitako tipoak? Nor dira gure herrian bizitzea oztopatzen digutenak?

IGANTZI

Aurten ere herriko bestak ospatu ditugu urtero bezala. Egitaraua nahiko polita zen. Musika talde onak ekarri genituen eta jende aunitz etorri zen, batez ere, larunbatean. Lastima egun honetan euria barra-barra aritu zuela eta giroa nahiko hoztua zegoela. Eskerrik ondoko egunetan eguraldiak lagundu zuela eta aipatu behar astearte gauean giro ona armatu zela "EGAN" taldearekin.

Udaletxeko balkoian 3 bandera zeuden: Ikurriña, Nafarroakoa eta Herrikoa. Zer gertatuko ote zen ba? Bigarren egunean jakina, telefonoa! Nor eta Berako koarteleko tenientea edo sargentoa edo esperpentoa edo (ez dakit zer gehiago erran, orain ez zait bururatzen) Baldin eta ez bagenuen ESPAINAKO bandera jartzen edo bandera guziak kentzen, heurek etorriko zirela kentzera. (Lo ziento pero e nuetro deber, erraten zuen!)

Nahiz eta herriko jendea ez enteratu edo enteratu baldin bazen garrantzi haundirik eman ez, uste dugu herri osoak salatzeko adinako arazo bat dela edo behar litzatekela behintzat.

EZKONTZAK

Aurten lau ezkontza izan dira Igantzin. Eskerrik, zeren azkeneko urte hauetan, nahiko jende hil baita eta Igantzi txikia baldin bada txikiagotuz doa. Bertze garai batetako jaiotza kopuru haundiak desagertu egin dira. Ez dakit, orduan preserbagailurik ezagutzen ez zutelakoz, telebistarik ez zegoelakoz edo sasoi haundiko pertsonak zirelako, baina orain behintzat ez dago lehen izaten ziren 10 eta 16 umeko familia aunitzik.

Egia da bizitza ere arrunt aldatu dela eta noski garai hartakoa lasaiagoa zela ere. Halaber kontutan hartu behar dugu gizartea zahartuz doala.

Beno, dena den ez dut erroilua sobera luzatu behar eta erran nahi nuena zera da: Ea ezkondu zareten horiek, nolako generazioa sortuko duzuen, zuren Igantzin nolabaiteko iraultza baten beharrean bait gaude, alde guztietatik begiratuta ([illegible] ez ere euskararen aldetik, A.E.[illegible], hor dagoela eta jende hau[illegible]dukela ohartzen).
Dena dela zoriontsu bizi zaitezten.

GAZTE JAIAK

Eguberriak badatozela eta hortxe ari dira talde batzuek jai berezi horien antolaketan jo ta ke. Gazte jai hauek hiru egunez izaten dira. Atzoko gazteen eguna, gaurko gazteen eguna eta geroko gazteen edo haurren eguna.

Jai honen helburu bat euskal giroa sortzea da. Helburu ederra lortzea izanen da zaila. Ea suertea baduzuen eta jai ederrak gertatzen diren.

LESAKA

ASTOPUTZA gazte kolektiboa.

LESAKAKO PLAZA BERRIA

Dakizuen bezala, espero genuen plaza "ederra eta berri berri hori", iatsu akabatuta dago.

Ez gara oraingoan, alde estetikoarekin sartuko, artikulo oso bat merezi duela pentsatzen dugulako, artikulo berezi eta sakona.

Horrek ez badu "koxkarik", hemen dugu azkenekoa: Lesakako haurrei debekatu zaie plazan eta Udaletxeko arkupetan jolastea, baloia, pilota edo gisa hortako "gauza arraroak" erabiltzen badituzte behintzat, farolak eta kristalak arriskuz kanpo uzteko. Hau dela eta, alhondigan saski baloian aritzeko sare bat eta karretera aldean bi ataka jarri dituzte, istripurik ez gertatzeko. Arazo honi buruz hitzegiten ari ginela Udalak, sesioan behin pein, ez zuela plazari buruz deus agindu enteratu ginen. Orduan noren aginpean gaude? Haurrei galdetu eta ez ziguten erantzun zehatz bat eman. Batzuk albintea izan zela, bertzeak berriz kamineroa edo beharbada alkatea, bainan inork ez zuen zihurtasunik erantzuterakoan. Betze aldetik, zertarako balio du herri batean, bere plaza, herritar guzien plazak edo, zein zerbitzu bete behar ditu? Ez dizuegu erantzunik emanen, baina jakina, argi eta garbi dago, beno, batzuen buruetan ez hain garbi, dirudienez.

BORTZIRIETAKO FERIAK

Joan den Azaroaren 18 eta 19 an ospatu ziren Lesakan Bortzirietako feriak. Asteazkena 18 merkatu eguna ospatu zen. Urtero bezala musika izan genuen Haritza taldearekin. Ortzegunak 19 feri eguna. Goiz goizetik hasi ziren postuak jartzen, eta konturatu orduko, Bittiri kalea, eta Plaza Zaharra saltzailez beteak zeuden, bakoitzak bere postua zaintzen. Jendetza polita elkartu zen, giro alaia eta beroa sortuz. Erran beharra dago, hagitz hazinda gutti zela. Urtetik urtera gero eta guttiago ikusten bait dugu. Egun hortan, beti bezala, begitu, ukitu eta beharbada erosi baina garrantzitsuena den bezala, ongi bazkaldu eta beste polita egin genuen.

ASTOPUTZA

Abenduaren 5ean "Astoputza" izeneko gazte kolektiboaren partaideek aurtengo bilera orokorra ospatu zuten. Bilera horretan urteko programazioa bideratu zuten eta baita Udaletxean aurkezteko presupuestua ere egin, diru laguntza eskuratu ahal izateko.

Aurtengo programazioa arrunt zabala da, gai aunitz ukitu behar bait dute.

Hasteko, antzerki saio bat muntatu nahi dute, lehen egin zuten bezela. Gero ikastaro batzuk egin gogo dituzte. Ikastaro hauetan, txalaparta eta dultzaina jotzen eta zankoz ibiltzen ikas daiteke.

Urtean zehar hamasei pelikula botako dituzte, eta horretaz aparte, Rock-jaialdi batzuk ospatu, Inauteriko kalejiraz arduratuko da, Zugarramurdirako autobusak antolatu.. eta abarretan arituko dira.

Erran digutenez, egitarau hau gauzatzea herriko etxearen eskutan dago, diru laguntza zenbat eta haundiagoa izan orduan eta gauza gehiago egiteko aukera izanen bait dute.

OSASUN ZENTRUA

Denok badakigu zein inportantea den osasuntsu egotea, gure bizimodua hobetu ahal izateko. Eta

jakina, osasuntsu egotea ez da eritasunik ez izatea bakarrik.

Egia da ez garela ongi atendituak sentitzen, eta argi dago ere gure osasuna zaintzen ez dakigula.

Egia da ere, ez dagoela ospitale eskasiarik baiñan lehen mailako atenzioa, nolabait baztertua dagoela garbi dago. Eta jakina, beharrezkoa da. Aldaketa haundi bat behar du. Lehendabiziko pausua emana dago, osasun-zonak osatu zirenetik. Horietan, osasun-zona bakoitzetan, kontsultategi lokalak eta osasun-zentrua sortu ziren eta lehen mailako atenzio taldea eta osasun-kontseilua ari dira jadanik lanean. Erran beharra dago Bortziriak osatzen dutela Nafarroako osasun zona horietatik bat, area 1en barnean.

LEHEN MAILAKO ATENZIO TALDEA

Zona honetan lanean ari diren sanitarioek berek osatzen dute, atenzio modu berri bat honetarako beharrezkoa den bertzelako pertsonalarekin batera: oheburuko medikuak, pediatrak, erizaintzako pertsonala, albaitari eta botikariak, gizarte langileak, laguntzaile sanitarioak eta administrariak. Gure osasun zonan, Bortzirietan, taldea ez dagoela erabatean osaturik erran beharra dago.

OSASUN KONTSEILUA

Bertan Udaletxetako, Ikastetxeetako, Lehen mailako atentzio taldeko, biztanleen eta eskualdeko osasun zerbitzuko ordezkariak biltzen dira.

LEHEN MAILAKO ATENTZIO TALDEA DITUEN ZERBITZUAK

. Kontsulta medikoa eta erizaintzakoa.

. Etxez etxeko bisitak (beharrezko kasuetan.

. Deialdi bidezko kontsultak: (aldez aurretik medikuarekin edo erizainarekin orduak hartuz) eta helburu hauekin:

* Haurdunaldia bitartean eta erditze ondorengo artetan emakumezkoari laguntza.

* Familia plangintzari buruzko argibideak.

. Gaixo kronikoei eta zaharrei laguntza.

. Umeari laguntza: haur txertaketak, elikadura e.a.

* Osasunerako heziketa: kontsultan pertsona bakoitzari emandakoaz gain, behar beretsuak dituzten taldeei, adibidez, diabetikoak, hipertensoak, etab.

. Errezetak eta tratamendu luzerako kartila, bolanteak, alta eta baja, txartelak etab...

. Ingurugiroaren kontrola: edateko ura, ur beltzak, zaborrak, etab...

* Eskolarekin elkar lankidetza. Umeen gaixotasunen prebentzioan eta heziketan.

. Animalien eta elikagaien osasun kontrola.

* Larrialdietarako zerbitzua. (DYAk egiten du)

* Langile sozialaren kontsulta, gizarte arazoei aurre egiteko.

* Zonako osasun kontseiluari laguntza, hiritarrek osasunarekin zerikusia duenean bete betean parte har dezaten.

. Zerbitzuak

* Odol eta gernu laginen erauzketa, analisiak egiteko.

* Ikuskapen bereziak, elektrokardiogramak, espirometria etab. (Nahiz eta aparatuak eduki pertsonala faltagatik ez dira egiten.

* Oinarrizko espezialisten kontsulta, (Pediatria, ginecologia etab.) Osasun mental taldea ezik, gainerakoak ez dute zerbitzurik.

* Erreabilitazio arina. Zentroaren barnean gela bat prest dago. (Terapeuta falta da)

(*) Asteriskoa dutenak ez dute funtzionatzen oraindik.

(Atentzio taldea osatuta izan arren, mediku bakoitzak bere herrian lanean aritzen da)

HAUTESKUNDE SINDIKALAK ESKOLA PUBLIKOETAN

Abenduaren 2an, Bortzirietako irakasleek beraien ordezkari sindikalak aukeratu zituzten.

Hortarako Lesakara etorri behar izan zuten, botoa ematera. Berrogeita hameka izan ziren parte hartu zuten irakasleak eta hauxe izan zen hauteskundeen emaitza Bortziriei dagokionez:

STEE - EILAS .-	26
LAB .-	17
CESIF .-	3
UGT .-	1
CCOO .-	0
Boto zuriak .-	2

ETXALAR

SANITATEKOEK "FONDA JUANTXO" ITXI ERAZI DUTE ARRAZOI SANITARIOENGATIK.

Azaroaren 27an eta Sanitate Departamenduko Albaitariek "Fonda Juantxon" egindako inspekzioaren arabera, dagokion aginteari informe edo txosten bat bidaltzea erabaki zuten. Txosten honetan, Fondako sukaldeak, komunak eta jantokiak ez dituztela ezta oinarrizko edo minimoki eska daitezken garbitasun eta higiene baldintzak betetzen ere adierazten da. Bertzeen artean eta txostenak dioenez, hauexek dira moldatu eta egokitu behar dutenen zerrenda; sukaldean:harraska berritu, keak ateratzeko estraktorea jarri, kisuzko paretak azulejoz estali, janari prestatuak gordetzeko hozkailua jartzea. Komunetan: azulejoz edo plastikozko pinturaz estali paretak, xukatzeko esku-oihalak paratzea eta, jantokian, paretak plastikozko pinturaz margotzea.

Fonda herriarena izanik, errentan alokatua zaio 15 urtetarako, 1.992a arte, orain maizter den Juantxo jaunari. Baldintzetan adierazten denez, ostatua eta jantokia alokatze kontratuàrenean, alegia, herriarentzako zerbitzu bat eskeintzera behartzen dio Udalak maizterrari.

Bertzaldetik eta sanitateko albaitarien txostenean azaldutakoaren arabera, egokitzeko eta berritzeko agintzen dioten zerrendan beteko ez duen arte, "Fonda Juantxok" ezin dezake bazkari-afaririk zerbitzatu, eta ostatua bertzerik ez dezake ideki.

Dena den, oraingo hau, ez da lehendabiziko aldia sanitatekoek Fondaren higiene eta garbitasunaz kezkatzen direla. Jakin dugunez, fondakoek ere, alde guztietatik zikinkeria nagusitzen ari zitzaiola ikusirik, zenbait neurri hartu omen zuten azken urte honetan. Erratebaterako, sagarroi gixarajo baten zerbitzuaz baliatzen ziren jantokia xomorro, labexomorro eta armiarmez garbitzeko. Pentsa dezakezue zer nolako harridura sortzen zuen sagarroiak, ausardiaz edo ez jakinagatik, Fonda Juantxon suertatzen zen mahaikide baten zangoak deskuidoz, ziztatzen zituenean.



Bera Lesaka Arantza Igantzi eta Etxalarko Udalek ahobatez kuartelaren aurka. Hala ere, udalen eta herritarren gogoaren aurka kaurtela eraikitzen hasi dira.

URTE BATETARAKO LAN-KONTRATUA UDAL IDAZKARI LAGUNTZAILE BERRI BATENTZAT.

Abenduaren 10ean egin zen herriko etxean, Udal idazkari laguntzaile berria aukeratzeko azterketa proba. Azterketa hontara sei bat lagunak aurkeztu zuen bere burua eta emaitzen arabera Mª Isabel Sanzberro izan zen epai-mahaiak aukeratu zuenak.

Langile berri honen eginbeharrak, sekretarioa edo idazkariari administrazio lanetan laguntzea izanen da eta aldi berean euskaratik gaztelerara eta alderantziz ko itzulpenak egitea. Lan kontratuaren iraupena urte batetarakoa izanen da eta egun erdiz (4 orduz) lan eginez.

PEDRO MARI ARBURUA HIL DA

Azaroaren 16an, bere sortetxean, Larraldean, hil zen Pedro Mª Arburua, hirurogei urte zituela bihotzekoak emanda.

Pedro Mª apaiza izana genuen. Hogeitamar zituela Argentinara joan zen, Mar del Plata hiriko auzo ttiki eta pobre batera. Joatearen arrazoirik nagusiena, Francoren diktaduraren menpean bere apaizgoa askatasunean lantzerik ez egotea izan zen. Mar del Platako auzo ttiki haretan, bertako eliza erakaitzearen ardura eman zioten. Eliza baino behar handiagoak bazirela ikusirik, ez bait zegoen ez eskolik, ez karrikarik, ez urik etxetan ..., lehenik eskola eraikitzea erabaki zuen zera erranez: "Lehendabiziko eman diezaiogun jendeari hezkuntza, kultura eta bere beharrik larrienak bete... meza non nahi eman daiteke." Erabaki hau ez zen obispoen gustokoa izan eta ia eliz agintarien aldetik laguntzarik gabe, auzotarren laguntza guztia berekin izan bait zuen beti, azkenean eskola eraiki egin zuen. Lehendabizian ttikia bazen ere, 3.000 haur hartzera iritsi zen, Pedro Mª zuzendari zuela.

Nahiko lan izan zuen gure Pedro Marik agintarien oztopoak gainditzen, bere eskolan hezkuntza aurrerakoi eta askatzailea ematen baizen eta hori, agintarientzat, "subertsiorako" bidea zen. Dena dela, urte asko zuzendaritzan egin ondoren, azkenean eta errepresioa gogortzen zihoanean, zuzendaritzatik bota egin zuten, herria eta ikasleen gogoaren aurka. Orduan, bere apaizgoari uko egin zion, haiek jartzen zioten bide aldrebesetatik joateko ez baizen prest.

Diktadura militarra ezarri zutenean, ihes joan behar izan zuen. Hagitz guttitik eskapatu zen, berak alde egin eta ondoko goizean bere bila etorri baiziren. Bera ez aurkitzerakoan, bere bizilagun zenbait eraman zituzten, Pedro Mªren berririk ez emateagatik. Gaur oraindik, desagertuen zerrenda luzeetan daude. Egoera honetan, gordeta, bortz urte egon behar izan zuen.

Itzuli ahal izan zuelarik, Eibarko bertze sozio batekin batera, oilo granja bat ezarri zuten, mila oilorekin hasi eta orain hogetabortz mila zituzten.

Ekainean etorri zitzaigun hilabete batzu pasatzera, hogeitabat urte ondoren eta joan den hilaren 29an itzultzekoa zen berriro Argentinara, hango gauzak bukatu eta erabat hemen geldi-tzeko.

SUNBILLA

ISTORIO ZAHAR BAT

Orain dela ez denbora luze, Sunbillan gizon xelebre bat bizi zen, Rosario izenekoa eta berari hainbat eta hainbat aldiz gertatutakoren kasu dugu hau:

Gaixoaldi batetan medikuarengana joan zen eta honek supositori batzuk errezetatu zizkion. Etxera joan zelik bere nagusiari galdera hau egin zion:

-Aizu Pantxo, hok nola hartzen dire?

-Nondik hartuko dituk ba, ipurtzulotik!

-Urde astozakila, ipurditik hartuko dizkit ba!

Hau erranez Rosario bere gelara joan zen. Pantxok ikusirik Rosario ez zela itzultzen, bila joan zen eta han ikusten du ahotik apar dariola supositorioak jaten.

-Zer ari haiz? Galdetu zion

-Aaaag! Ez dute gusto izugarria.

AEK GAU-ESKOLA

Guk ere, sunbildarrok, euskarari ekin diogu, alfabetatzeari hain zuzen ere, klaseetara nahiz eta batzuk afaldu gabe etorri, bertze zenbaitzuk ederki afalduta eta ikasteko prestasun haundiz. Baten bat ere etxetik iheska, bertako lanak ez egiteagatik.

Gustora etortzen bagara ere, klasean hotzak hilik egon ohi gara, irakaslea alfer hutsa dugulakoz eta ez digulakoz estufa bixten. Klaseak eskola zaharrean ematen ditugu eta hagitz abudo Mikel eta Laura gainera eroriko zaizkigu, itxura onik gabeko soliba bat bait dago.

Florentinak ez digu kasurik egiten, haserratu zaigu, "gehiago ez dela etorriko" mehatxuz beldurtu nahi gaitu. Inaxia berriz, hor dabile Nor-nori-nork eta nor-nork ezin ezberdinduz. Rodolfak afari gehiago antolatzeko dio, gure ustez, gustatzen zaio mutilaren bat eta bera ligatzeko asmoz dabile. Berarei zegokion berria idazterakoan hau bota digu: "Kuskuzu hoi ez patu eh! enaiz gehigo torko" Eta gaurkoa akitzeko Sandalio arrunt alua zenez Sunbillara etorriz geroztik zentzatzen ari.

Bertze berriak hurrengo txandan eta aholku bat bertze gaueskolakoei: Ongi pasa ta aunitz ikasi. Ah! eta aspalditik zain gaudela Berako alfabetatze taldekoen kartak.

SUNBILLAKO ABESBATZA.-

Euskal Telebistak Sunbillako Abesbatzak, Lazkanoko elizan kantatutako meza bat grabatu zuen. Horretarako bi autobus jendez beterik joan ziren herritik, grabaketa hau egiteko. Meza kantatua grabatzen dutela bigarren aldia da, orain dela urte bat gotti betti lehendabiziko aldia izan zelarik. Azken grabaketaren emanaldia Azaroan eskeini zigun ETBk eta erran beharra dago aurten hobekiago kantatu zutela eta arrazoia izan litzateke egunero gaueko zortzietan elizara ensaiatzera joaten zirelakoz.

Abesbatza hau berrogeitamar pertsonez osatua dago, hogeitabortzenbat, hamaseitik berrogeitamar urte tartekoak dira eta gainontzekoak hamar urtetik hamaseirakoak. Abesbatz honen zuzendaria Basilio Sarobe dugu, herriko apaiza.



Sunbilla, zubi hori ere konpontzez noizbait bukatuko dute.

DONEZTEBE



DONEZTEBEKO ALKATEAK EUSKARA IRAINDU.

Herri honetako alkateak, Ttipi-Ttaparen eskutitz bat hartzerakoan ez zion sarrerarik eman nahi izan euskara hutsean zuzendua zegoelakoz.

Horrelako ekintza bat egitean, alkate honek, euskararekin duen harrera argi eta garbi azaltzen du. Inongo lotsarik gabe erdaraz idatzia eman ziezaiola eskatu bait zuen. (Pentsa! itzultzaileren beharrik ere ez du ikusten).

Argi dago Doneztebeko Udalak euskarari zein toki ematen dion.

Hala ere, Udalera etortzen diren eskaera guztiak hartzeko obligazionea dutenez gero, Ttipi-Ttapak berea ere sartu zuen. Dena dela eskutitz horretan Ttipi-Ttaparen 1988ko aurrekontuaren batera Udal horri dirulaguntza eskatzen zitzaion.

(Hurrengo Ttipi-Ttapan adierazi ko dugu zein nolako dirulaguntza eman zuen)

Baina ohartxo bat, Sr. Alcalde! Euskarak zuk uste baino errespeto gehixeago merezi du. Zure jokaerak gauza bat besterik ez baitu adierazten: "Ignorancia" eta "muy mala educacion"

tan herri hauek hartzen dute parte: Ezkurra, Erasun, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe, Sunbilla, Bertiz Arana (Narbarte, Oieregi eta Legasa) Donamaria, Oiz, Urroz, Labaien eta Saldias.

Une honetan ZABORRAREN arazoa dute esku artean. Zaborraren bilketa, karraioa, eliminazioa (intzinadorea), gestioa eta kontrola. Horretaz aparte, zaborrak biltzeko kamioia eta kontenedoreak lortu nahi dituzte eta iadanik, diru laguntzak eskatuak dituzte. Bestalde, lur zati bat ere lortu nahi dute, hain zuzen ere bilketa berezia egiteko (kristalak, papera...) eta lur horretan baldintza egokitan edukitzeko.

Mankomunitateaz aparte, gauza puntualetako elkarteak egiten dituzte, errate baterako ETB lortzeko kasuan. Iadanik errepetidorea paratzeko proiektua egin dute. Baieztatzea besterik ez da falta. Beraz, agudo ETB ikusteko aukera izanen du Malda-Errekak ere.

Orain dela 20 urte berriz, industria bultzatzeko eta eskola profesionalak egiteko ere sortu zen beste Mankomunitate bat. Ondorio bezala, gaur egun lurralde batzuren eta edifizio baten jabeak dira. Orduko estatutoekin dago Mankomunitate hau eta orain kezkati dabiltza, berplanteatu gauza edo lur horiekin zer egin ez dakitela.

MALDAERREKA

Malda-Erreka, herri txikiaz osatua dago, handixkoena Doneztebe dugu. Hori dela eta, zonalde honetan zenbait onura lortu nahi delako Mankomunitateak sortu dira. Mankomunitate bat egitea organizazio era bat egitea da, bertan Udalak elkartzen dira, bakoitzak ordezkari bat gutxienez paratuz, estatuto batzuekin eta legalki azalduz. Horrelako gauza bat antolatzean serbitzu bat egiteko asmoa izaten da helburu bezala eta aldi berean Udalak gai horri buruzko poterea bertan uzten duelarik.

INGURUGIROKO arazoak tratatzeko Mankomunitate bat dago, ber-



GRIPE TXERTAKETA

Urtero bezala udazken aldera gripen aurkako txertatzea egiten da. Aurten, Sanitatetik bidaliak izan dira txertu horiek eta modu berezian paratzen ari dira. 65 urteko pertsona guztiei eskutitz baten bidez edo aurrez geldituta zentrura edo herrietako kontsultatara etortzeko erran zaie. Deitu zaien hauetatik % 75 bat txertatzea etorriko dela uste da. Horiez aparte bihotzeko, giltzurdinetako, arnas aparatuko eritasunak izaten dituztenek ere komeni dute txertatzea, baita diabetisa edo tentsio altua izaten dutenek ere.

Gripea, negu aldean sortzen den eritasuna da eta arrunt kutsakorra da. Egun batzuz sukarra goratu, buruko eta gorputz osoko minak, nekea, eztula, mukia, jateko gogo eza eta abar sortzen ahal du. Txertu hartuz gero gripea ez da harrapatzen edo harrapatuz gero leun-leun pasatzen da.

Adiskidea! Negua ongi pasatzea da asuntoa.

Hauek ere txertatzen ari dira.

OSASUN HEZIKETA

1.987-1988 kurtsorako Osasun Heziketa eskolan posible izanen ote da?

Irailaren 30ean Donezteb eko irakaslei Osasun Komisio batek proiektu bat aurkeztu zien.

Komisio hau aurtengo Otsailean sortu zen hain zuzen ere eskolako haurren Osasun-miaketek zirela medio. Bertan 3 sanitario, 2 irakasle, 2 guraso, 2 ikasle eta pedagogo batek parte hartzen dute. Nolabait ere talde honen helburuak hauexek dira: eskola eta osasun arloan harremanak izatea, ekintzak koordinatzea eta bai alde bateko eta besteko formazioa lantzea.

Irakaslei aurkeztu zaien proiektua hau da: aurtengo kurtsoan higienea eskolan lantzea. Eta proiektu hori klaustroak onartu beharko luke ondoren eskolako ikasketen planean sartzeko. Eskolan irakasleak, baina etxeetan gurasoak hezitzen dute haurra eta nolabait ere gurasoekin kontatu behar proiektua aurrera eramateko. Beraz, heurei ere adieraziko zaie zertan zehazten den proeiktua, hain zuzen ere heuren seme-alabei ohitura osasungarriak erakusteko.

Hara hemen zertan datzan osasuna hobetzeko haurrak ikasi behar dituzten ohiturak:

- Komonean izan ondoren katetik botatzea.
- Komonetik atera ondoren eskuak garbitzea.
- Otorduen aurretik eskuak garbitzea.
- Ongi dutxatzea.
- Eskolako jantokian, serbitzaileak eskuak garbitzea.

Ez dira helburu zailak, baina gutxi bada ere horixe lortu nahi da, hain zuzen ere garbitasuna gauza ona bezala baloratzen ikasteko, kutsatzeko arriskurik ez izateko.

Ea ohitura osasuntsuak indartzen ditugun.

GOIZUETA



Hona hemen Goizuetako berriak, kalean jasoak, pilota plazan ikusiak, Herriko Etxean entzunak, ..., lagun artean ikasiak. Gure berriak horrelakoak bait dira, freskoak, zuzenak... Bizitzan bezala, berriei ere leihoak zabaldu behar zaizkie. Beldurrik gabe plazaratu.... aurrez aurre.

GOIZUETAKO HERRI BATASUNAK EZEZKOA TTIPI-TTAPARI

Goizuetako Herri Batasunak ezezkoa eman zion TTIPI-TTAPAk Herriko Etxeari eskatutako diru laguntzari.

Urriaren hogeitahiruko Herriko Etxeko bileran ANIZLARREAK eta HERRI BATASUNAK eskaera eztabaidatu ondoren, bost mila pezetalaguntza ematea erabaki zen ANIZLARREA taldekoen botoei esker.

"Nere aitaren etxea defendituko dut..." baina gure aitaren etxeko hizkuntza defendituz hasi beharko genuke.

AÑORGA ETA GOIZUETA

Añorga eta Goizuetako larogei bat mendizale elkartu ziren urriaren hogeitabostean Urnietatik Goizuetarako ibiladiari ekiteko. Mendia lainoak harturik egon arren alaitasunik ez zen faltatu bidean eta denak pozik ailegatu ziren Goizuetako Humore Ona Elkartean prestatutako bazkarira. Jakin dugunez, bazkalondoreko eskusoinuaren doinuak oraindik kilika egiten omen diete barrenean, han egon zirenei.

Bi herri hauen arteko elkartasunari aurrera egin behar!

PILOTAN GAUEZ

Bai bai... Gaueko 11'30etan jokatu zen.

Lujanbio - Salaberria (M. Angel) 22

Salaberria (Angel) - Apezetxea 13.

Jende asko erakarri zuen Bekolandako pilotaplazara partidu dotore honek. Bedeinkaziorik izan ez bazen ere inauguratutzat eman dezakegu pilotaplaza berria.

ZAHARREN EGUNA

Gorputzaren ezinari barren indarra gailentzean, urteak ez dira seinale zahar edo gazte izateko. Hala ere, hirurogeitabost urtetik goitiko Goizuetarrak beren omenaldia urriaren 18an ospatu zuten. Leitzako dantzariak etorri ziren, pilotaren ondoren bazkari ederra ere izan zen, mus txapelketa, trikitilariak... Ttipi-Ttapako txoriak ikasi duenez batek baino gehiagok biharamuna ederra ere izan omen zuten.

Ea nork asmatzen duen D. Bixente, Xeberino eta beren pintxeak zer egiten aritu diren.

ITUREN



Herrian egunerokoa egiterakoan badirudi ez dela deus berririk gertatzen. Gaur euria, atzo elurra, laino artetik eguzki izpiak eta, Mendaur txuritua iadanik. Udazkenak neguari eman diola hasiera erran behar.

Baina, ez pentsa! zenbait aldaketa izan dira herrian, azkeneko hauteskundeak izanez geroztik. Udal berria sartu zelik (5 zinegotzi "Talde Berri"ko eta 2 H.B. koez osatua) herriko etxea, udaletxea, idazkaritza, herriko diru kontuak eta abar luze batek nondik heldu ez zuela ikusi zuten. Horko saltsa! Udal berri honek lanerako gogoa izaki eta aurrekoen laguntzarik gabe, "etxeko trapu zaharrak" garbitzen, argitzen, bere lekuan paratzen hasi ziren. Horrela, hasieran informazioa biltzeari, gauzak antolatzeari ekin zioten eta hobeki aritzeko lan-taldeak, komisio desberdinak sortu zituzten, zinegotziak banatuz, bakoitzak bere ardurak hartuz.

Lehen arazotako bat URARENA izan zen. Hain zuzen ere etxeetara urik ez zela iristen. Ur-gordelekua begiratzen hasi eta baldintza egokirik batetzen ez zutela, nabarmen azaldu zen. Bat larraz josia, bestea berriz betetzen zelik goittiago zegoena hustuerazten zuela eta abar. Urak kloratzeko, behar duen kloradore falta... Beraz, hori konpontzea jo zuten. Hala ere, oraindik zerbait neurri hartu beharko dira, erregadio kontuan eta abar. Kloradorearen asuntoa berriz heldu den urteko aurrekontuan sartu dute.

Bestaldetik berriz, AUZOLANEN antolaketa serioa egin da. Hain zuzen ere honela eginen da hemendik aintzinera:

1. Bando eta iragarkien bidez jakin eraziko zaio herriari.

2. Horien bidez, zein lekutan izanen den eta zein lan-tresna eraman behar den adieraziz.

3. Etxe bakoitzak gutxienez lau auzolan egin behar ditu urtean.

4. Auzolanean, 6tik- 8 ordura egin beharko da eguneko. Ordu horiek 2 saiotan banatzen ahal dira.

5. Auzolanera joateko, Udaletxearen aurrean bilduko da jendea.

6. Bertan, Udal-ordezkariren bat izanen da eta berak adierazi ko du non eta zein lan egin behar den.

7. Albinteak auzolana egiten ari diren lekuan, zein etxetakoak etorri diren eta zein ez kontutan hartuko du. Albinte bera ere, jan-mokadua emateaz arduratuko da.

8. Auzolanera joaten ez denak 2.000 pzta. ordaindu beharko ditu egun osoagatik eta 1.000 egun erdiagatik. Kontribuzioa kobratzerakoan eginen dira kontu hauek.

9. Auzolanerako- behar den materiala Udalak paratuko du eta lanean aritu behar duten lekuan uzteko ahaleginak eginen ditu.

10. Makinaren bat paratzen duenari, tratorea eta abar, auzolanaren erdia bezala kontatuko zaio.

11. 1987rako gutxienez 2 auzolan egiteko obligazioa izanen da. Hala ere, auzolan gehiago egin behar badire, ez da eragozpenik egonen.

12. Auzolanetara joan ez direnen diru-ordainekin, sozial arloko gauzak eginen dira eta lan horietarako langabezian dagoen jendea kontratatuko da.

Gauzak honela, iadanik herrian 3 auzolan egin dira. Eta horien bidez lan hauek: eskola ataria moldatu, Ameztiko kuneta garbitu, Mendaur aldeko pista txukundu, Aurtizko frontoneko lanak...

Herriko Etxea, HERRIKO OSTATUA ere, noiz bait, azkenean herrikoa dela erraten ahal dugu. Hori,

7.600.000 pezetatako traspasoa ordaindu eta gero lortu da. Eta, subastan atera ondoren gazte talde batek hartu du 10 urtetarako. Herriko ostatua beraz, zabalik.

Hirigintza aldetik berriz, lehengo Udalak utzitako planoekin kontatzen da. Bertan herri inguruak mugatuak azaltzen dira. Hain zuzen ere, zein den hirigintzarako lurra adieraziz. Lur horren balioa metro karratuko 1000 pezetatan baloratua izan zen bere egunean. Zergak ordaintzeko orduan kontutan izan behar da balore hori. Batez ere metro karratu anitz dutenek zeren eta Diputazioak ehuneko 4a aplikatzen bait die eta herriak berriz ehuneko bostetik ehuneko 20a bitartekoa (zifra hauen artekoa bereiztea herriko beharren arabera eginen da) erratebaterako, herritar batek 500 metro karratu baldin baditu, lur horren balorea (500 x 1000) 500.000 pezetatakoa izanen da. Horri ehuneko 4a aplikatuz 20.000 izanen dira eta Udalak zifra horri erraterako ehuneko 20 egiten badio 4000 pezeta ordaindu beharko du lur horren jabeak. Beraz, kontu, lur anitz duenak.

Ituren, auzolanean Eskola aurrean.

ESKOLA kontuan berriz, ezin gauza handirik egin. Herriko haurrak 2 edifiziotan banatuak daude. Horietako bat herriko etxea da eta bertan bi ikasgela erabiltzen dira. Eskola berria egiten ez den bitartean bederen txukuntzea merezi zutela eta hortan ari dira une honetan, solairua moldatzen eta abar.

Urroz eta Ameztiko ELKARRIKO LURRETAN berriz, lehen pinua eta zaborra zegoen lekuan, orain landare berriak paratzeko asmotan ari dira, zuhaitz desberdinak, aritza, gaztaina... lur horri dagokion landareak hain zuzen ere.

Bestalde H.B.k aurkeztutako mozioak Udalak onartu ditu. Hain zuzen ere, Bardeetako Tiro Poligonoaren desmantelaketa, lur komunalen okupazioaren berreskuratzea, zonalde ez nuklearra eta desmilitarizatua izatea, elemendu erradiaktiborik bertatik pasatzea galeraztea, herriko sarrera eta irteeran Iturengo zonaldea ez nuklearra eta ez militarraren inskripzioa paratzea.



ZUBIETA

Diputazioak edo Gobernukoak diru laguntza handaiagoak emango balituzte TTipi-Ttapa maizago eskutartean izango genuke eta berriak ere, berriagoak izango lirateke, ez orain bezala, hiruzpalau hilabete itxoin behar dela eta momentua ailegatzen denean ez dakigu nola bereiz, zein den berri garrantzitsua eta zein ez. Hontaz ere, Gobernuak erru!

Edo astekari bat balitz, adibidez, nahiz berri bat ez bukatu, jarraipena duelako, hurrengoan izanen zen baina, orain, nola utzi hiru hilabetetako tartearekin? Enfin, negarra utz dezagun eta tira, duguna hartuta, saia gaitezen!

Ostatukin sekzio bat ireki dezakegu, azken funtsean herriaren bihotz zati handi bat bait dira, sanitarioen desesperazio teorikarentzat, ez benetazkoa. Hara heuren bi berri garrantzitsu:

HERRIKO OSTATUA

"Don Michelek" alde egiteko asmoa azaldu zuenean, denok beldur ginen berriz ere ostatua itxirik geldituko ote zen.

Herriko ostatua enkantera atera zen. Ez nola nahiko errentarekin... Ahatik!! zurrumurru politak... Nola? Denok harri eta zur geldituginen, batez ere ostatuaren egoera tamalgarria ikusiz, tresneria murritza eta denoren kezka: solairua; auskalo aurtengo Iñotik iraungo dituen denok dan tzan eta lurra dardarka a a aaa a a tobogan baten gisa. Bezeroei dagokienez eskasa da eta konpetentzia latza (bost ostatu). Bestalde, herritar bat nagusitu da, eta gehienak, guregana tze hau gogoz hartu dugu. Badakigu nolabait saiatuko direla eta iadanik igandetan, bertan ematen diTuzten salda goxo eta txitxizotzak bezeroen artean izugarrizko arrakasta izan dute. Kasparofen antzera jokuaren lehenbiziko pausoa bezeria erakartzeko. Erne hurrengo jokaldiari.

Zubietako berrien "labe".berria.

ERRANDONEKO BILARRA

Pin, pan, pun, Errandoneko ate pasairan errepertorio berri bat aditzen da. Zer ote da? Ez dakit, baina antza duenez jolastoki bat kokotaraino haurrez beterik dagoena. Bai, arrazoia duzu. Zeozerrek "Hamelynen" rekorra hautsi du. Goaz ikustera!

Hemendik jaurti, handik oihu, bestaldetik garrasi eta azkenean zeozer hori begistatzea lortzen dugu. "Bilarra". Sekulako arrakasta izan du, ume, gazte eta ez hain gazteen artean, ikusi denez txikiak handiei jolastera ez uzten, eta oso anbiente epela sortu zen. Ume plasta hauei zaplasteko bana gustora emanen genieke eta bilarrak ekarritako buruko minak kentzeko neurri berezi batzuk hartzea erabaki zen. Orain bai, iluntzean lasai lasai Errandonera bilarrera jolastera.

Dena ez da edan eta jostatu, noski, zubitarrok langileak bait gara eta emakumeak ez dira atzean gelditzen, belarrari buelta emateko ez bada, JOSTUNAK.

Jostunak berriro borrokan hasi dira. Azaroaren hamaseiean hasi ziren.

Hamabost lagun bildu dira ikasketa horietarako. Bat Iturengoa da, bi Aurtiztarrak eta gainerakoak Zubitarrak dira.

Klaseak egunero izanen dira ordubit´erdietatik seit´erdiak arte. Urriaren hogeitahamarrean bilera bat izan zen eta noiz hasi behar zuten erabaki zen. Ikasturte honekin hirugarrena dute. Lehenengo urtean heurek nahi zutelakoz hasi ziren. Hurrengoa E.P.A.k antolatu zuen eta aurten E.P.A.-I.N.E.M.ek.

Oraingo aldian kobratu behar dute:

- 25 urtetik gorakoek, urte bat paroan egon badira, 30.000 pezta irabaziko dute.

- 25 urtetik beherakoei, denei 15.000 pezta emanen diete.

Irakaslea betikoa izanen da. Silbestra andrea. Ikasle berriak oso gutti dira, ia denak iazkoak.

Heuren artean harremanak oso honak dira eta tartean ez da haserrerik izaten.



Baina denak ez dira bentajak, garrantziazko arazoak ere badira. Hilabetean hiru klase galtzen dituenak, kurtso horretatik atera egingo da. Pixkanaka pixkanaka zortzi ikasle gelditzen badira, kurtsoa bukatzen da...

Eta zer gertatzen da klase atariko letra horiekin? "Modistas, nosotras tambien keremos aprender, pero con titulada, no con aficionada y del pueblo no".

Nor izan ote da hori idatzi duen ausarta? Zein koldartsua den pertsona hori! Muturra eman beharrean, bizkarratikan kritikatzen du.

Ez bazaio gustatzen irakaslea, zergatik idazten du lurrean eta ez esan jende aurrean? Zeren beldur da?

Ez pentsa gero erraza izan denik. Tokia berakin iskanbila ugariak izan dira, eskolan edo kontzejuan egin behar zen azkenengo momenturarte ezin jakin. Mementuz eskolan dira, hankaz gora eskolan zeren uda bukaerako egin beharra zen eskolaren konponketa ez da ez bukatu, ez bukatzeko itxurakin. Batean iheltseruak dira, hurrengoan pintoreak eta beti aparejadore jauna, zentzu horretan, bederen, bere lana eta markatuak dituen epeetan, kunplitzen eztuena.

Hori bai, gauzak nola luzatzen diren adibide bat nahi baduzute ETBkoa aukeratu. Laupabost urte luzeetan hasitako afer honek ez du bukaerarik lortzen. Bilera joan, bilera etorri, han edo hemen, Garardin edo Mendaurran baina ETB, behingoz eta betiko zeren, azken honetan, itundarrak dira luzatzeko erruduna. Ez diegu, ezta gutxiagoere, borondate ona ukatuko, ez, baino Iñotitako erreportaiak etxean ikustera gustatuko litzaiguke, ez Donezteben berriro. Eta ia-ke hortaz ari garen, astelehenako emakume joalduna prestatzen ari ote?

ZUGARRAMURDI



Betitik urria hilabete haizetsua izan da. Nere ustez urriaren konponente tipikoak dira: usoak, gaztainak, onttoak eta haizea.

Baina aurtengoa "pasada" bat izan da. Ongi da mendian barna ibilki zarelarik zure gibeletik pusaka haizea sentitzea; edo zein txokoetan ostoak airean barna dantzan ikustea; eta nere ama pozik izaten da hedatutako arropak laster idortzen zaizkiolakoz halako haize ederra. Baina erran dudan bezala, aurtengo haizea ez da batere "erromantikoa" izan.

Herri guztietan izan dira teilatu hautsiak, mugituak, TVko antena makurtuak, arbol eroriak, lore xehatuak... eta gure herrian ere bai, segurki.

Guzi hori eta gehiago ere izan da. Kontatuko dizuegu zer gertatu zen: Badugu Zugarramurdin Aurora izeneko neskato bat; ezagutzen ez duzuenendako erranen dizuegu Aurora Alzateneko ostatuan bizi dela, neska polit bat dela, joan den urtean herriko mus txapelketa irabazi zuela, Ah! eta ttiki, mehe eta fina dela (seguraski horrengatik...)



Eta hala, urriako arratsalde batez bazoaien Aurora bere 4L-ren bolantean majo-majo Bereko-Benta aldera batere jakin gabe zer gertatu beharra zitzaion handik momentu baten buruan. Bazoaien lasai-lasai, ia ia Bereko-Bentatik hurbil eta hartan ZASTATATRAS!! haize kolpe handi-itsusi-tzar-madarikatu zikin bat altxatzen da, jo eta botatzen ditu hantxe bertan Aurora eta bere Katrela.

Karreteratik atera, pazota eta alanbre batzuk errotik atera eta belaiean ardien artean aterrizatu zuen (ardiek laster inguratu

zuten harrituak erranez ("Zer arraio sartu zaigu hemen tresna tzar hau?")

Eta Jainkoari esker hau izan zen dena. Hori bai, kotxeak ageri ditu argi eta garbi bi pazoten musuak, baina hortik kanpo ez zen gehiago deus graberik gertatu, Aurora eta ardien izialdura bertzerik.

. — . — . — . — .

Hiri haundi horietan ez diote sobera inportantziarik ematen ezkontzari, sortzeari edo hiltzeari. Baina gure herri txiki hauetan urteko berri haundienetarikoak izaten dira. Ez bakarrik kuriositate edo txismokeriarengatik, baizik eta hain biztanle gutti izatean penatzen gara norbait hiltzen delarik ("bat gutxiago herrian" pentsatzen dugu), edo pozten gara haur berri bat sortzen zaigularik.

Pentsatzen dut herri aunitzetan bezala, Zugarramurdin ere poblazio aldetik problema bat badugula: pixkanaka, pixkanaka atzera gaki garelakoz.

Mende honen hasieran baziren Zugarramurdin bostehun biztanle pixkat gora-behera, gaur 330 edo zerbait hola garela uste dut. Azkeneko urteetan nola izan den ikusteko, mugimendu hau Don Javier gure apezak prestatu zidan azkeneko 10 urteetako mugimendua, eta ikusten den bezala, horrela erakusten du atzera goazela:

URTEA	HILAK	BATAIATUAK	EZKONDUAK
1977	5	4	1
1978	3	3	2
1979	2	3	3
1980	7	5	0
1981	4	4	2
1982	6	2	1
1983	11	3	1
1984	2	4	0
1985	1	1	0
1986	4	0	2
1987	7	2	1



1,987 ko azken urte huntan zentratuz, 7 lagun hil direla ikusten dugu, haietarik hiru, nahiko gazteak: Pantxo, Franzisko Jabier eta Zenon. Bertze aldetik bi nexka sortu dira: Maite eta Saioa. Eta Pilar Goiburukoa ezkondu da. Fabore ederra egin dio Pilarrek Zugarramurdiko demografiari herrian bertan geldituz eta gainera biztanle bat gehiago ekartzean. Normalki neska izaten da mutilaren herririat joaten dena bizitzera, bainan kasu huntan Pilar eta Pablo Zugarramurdin gelditu zaizkigu.

. — . — . — . — .

Badakizue azkeneko 4-5 urte hauetan Baztanen "Xorroxin irratia" martxan dela. Irrati huntan ematen dituzte herrietako berriak eta orain berriki, urrian, hasi gara ere Zugarramurditik bidaltzen hemen barna gertatzen diren aferak.

Zugarramurdiko korresponsala Koro dugu, eta astero burua hausten omen du ezin jakinez aste batetik bestera zer berri eman, ez delako gure herri huntan sobera gauza miresgarri gertatzen irrati batean kontatzeko bezala.

Aste batean kontatzen du: "Bai, uso franko pasten omen ari dire, bainan onttoak berriz ez omen dire ageri". Bertze aste batez kontatuko du nola Aurora airean barna ibili zen, sorgin bat balitz bezala. Bertzetan ez du erranen euria parrapataka ari dela bertzerik baizik. Eta bertzean behar bada txiste batzuk kontatuko ditu...

Beti ere, jakin ezazue Zugarramurdin berri nahi baduzue jakin, FMko 107 konektatu behar duzuela astearte guztietan goizeko bederatziak aldean eta hantxe izanen duzue Koro formal-formala ahal duena egiten.

BAZTAN

NAFARROAKO II. EUSKAL KANTU LEHIAKETA.

Aurten, iaz bezala, Elizondo suertatu da II. Nafarroako Euskal Kantu Lehiaketaren lehenbiziko aintzin finalaren lekuko, iragan igande arratsaldean eman bait zitzaion hasmenta aurtengo edizioari, Elizondoko Erlategi zinema jendez gainezka zegoela.

Zineman bildutako lagunak, 500-etik goiti, gustora egon ziren, saioa ez bait zen luzatu.

Partaidetzari dagokionean, 19 aritu ziren denetara, bai haur, bai heldu, beti ere bakarlari, bikote eta taldetan. Kasu batetan izan ezik, gainerakoak Baztan eta ingurukoak ziren.

Haur mailan hauexek izan ziren kantariak eta bakoitzak abestutako kantuak: Ion Barberena bakarlaria "Balearen bertsoak", Baztango ikastolakoa; Haritz Gaztelu, "Jolasean", Baztango ikastolakoa; Baztango ikastolako hirugarren mailakoak, "ikasi mendizaleak"; Baztango ikastolako Traketsa taldea, "Irati mendian"; Baztango ikastolako Begoña Biela eta Mertxe Olondriz bikotea, "Gure Txakurrari"; Sunbillako 4. mailakoak, "Otsoak eta Txanogorritxo"; Igantziko Unanu taldea, "Euskarari bai" eta "Euskara oi euskara"; Baztango ikastolako Iosune Iturzaeta, Mirian Ruiz de Larrinaga eta Edurne Biguria, "Aitorren hizkuntz zaharra"; Doneztebeko 5. mailakoak, "Aitorren hizkuntz zaharra" eta "Oraingo Errenteriari"; Baztango ikastolako Udaberri taldea, "Ziru-ziru-zira"; Baztango ikastolako Mari Beltxa Unanua eta Ainara Aldako, "Irunekо ferietan"; Baztango Ikastolako Ana Iturralde eta Alberto Barberena, "Maritxu nora zoaz"; eta azkenik Baztango ikastolako Txori erresinula taldea, "Salamankara".

Helduei dagokienez hauexek izan genituen kantu eta kantariak:

Isabel Aleman, Maki Urtasun eta Itziar Mena baztandarrak, "Ama" eta "Una planeta"; Zugarramurdiko Akelarre taldea, "Zazpi mila sorgin"; Doneztebeko Kurkuxa taldea "Belateko lapurrak" eta "Maitiak galdegin zautan"; Bareak taldea, Larraun eta Basaburukoak, "Orain bi mila urte" eta "Sarian zun zun"; Zugarramurdiko Arburutarrak taldea, "Amaren bularra" eta hondarrik, Zugarramurdiko Koro eta Mertxe bikotea, ama eta alaba, "Maurtxo ttipia" eta "Galtzaundiren testamendua". Erran beharra dago bertzalde, iazko lehiaketan txapeldun gertatu zen Elizondoko Eusebio Izetak hasiera eman ziola kantaldiari "Goizian argi hastian" abestia kantatuz, ez zuen Lehiaketan parte hartu, baina.

Epai-mahaian hauexek egon ziren: Fermin Iriarte, Andres Iñigo, Fermin Balentzia, Koldo Pastor eta Eugenio Arraiza igandeko saioan. Heldu den abenduaren 13an Etxarri Aranatzen iraganen den kanporaketa saioaren ondoren ezagutzera emanen dituzte Doneztebeko saio nagusian abenduaren 19an arituko direnen izenak. Bordatxo dantza lekuan burutuko da hain zuzen finala.

AEKtarrak Iparraldean

AEKko ikasleak hiru egun Bidarrain.

AEKn ohituraz ateraldiak egiten dira eta oraingo honetan Iparraldera jo genuen, Bidarraira, Behe Nafarroako herri polit batera.

Ortzirala arratsaldean 12 bat lagun abiatu ginen kotxez. Zazpiak aldera iritxi ginen "Etxezaharrerat". Etxezaharrea mendizaleentzat egindako etxe bat da. Tresna guztiak deskargatu eta laister hasi ginen afaria prestatzen. Giro ona sortu genuen afarian, irri ederrak eginaz. Gustora afaldu genuen oihu eta zalaparta artean eta afal ostean betiko "jokoa" (joko honetan galtzen duenak baxera guztia fregatu behar du.) Baten bat urduri xamar zegoen, bertzeren bat lasai aldiz. Dena den hiru gizarajoei tokatu zitzaigun fregatzea (beharrik ez zegoela aunitzik fregatzeko.)

Guzti hau burutu ondoren batzuek jokoan eta bertzeek istorioak kontatzen pasa genuen goatzeratu ginen arteraino.

Biharamun goizean jeiki eta Irulegi irratia ikustera joan ginen eta ondoren Baigorrin dagoen "Irulegi" ardo kooperatibaren berri jakitera joan ginen. Han Michel Bergouignan, kooperatibako zuzendariak ongi etorria eman zigun, kooperatiba guztia eta haren funtzionamendua, istoria eta arazoak azaldu zizkigularik.

Ardoa dastatzeko aukera ere izan genuen.

Berriz Etxezaharrera itzuli ginen bazkaltzera. Bazkal ondoan ardi granja bat ikustera joan ginen eta bertako etxekoandreak erakutsi zigun granja guztia. Hango bizi guztia azaldu zigun, nahiko gaurkotua aurkitu genuelarik.

Ondoren Donibane Garazira abiatu eta afal ordua heldu arte herria ikusten eta pote batzuk hartzen ibili ginen.

Igande goizean, Cristophe Istequen omenez, Baigorrin zegoen gaiteroen kontzertua ikustera joan ginen. Nafarroa eta Iparraldeko gaiteroak ziren gehienak.

Bazkaltzera itzuli ginen, eta etxeratu baino lehen gauzak zeuden bezala utzi genituen.

Bera aldera jo genuen eta Errekalde ostatuan elkartu ondoren Lesakara abiatu ginen. Lesakan betiko kontua, poteoa, eta horrela bukatu genuen ateraldia.

Erran beharra dago, asteburua oso atsegina eta interesgarria pasa genuela.



Diru kontutan...

"BOLTSA" BEHEKO ERREKAN

Boltsa edo burtsa, zerk eraman du beheko errekara?.

Gure lanarengatik, batek baino gehiagok egiten digun galdera. Izan ere, jendea bait zebilen berriz ere akzio mundu hortan bere sosa pixarrak sartzen edo sartu nahizik. Eta orain, erreka zulora joan direla akzio guztiek.

Zergaitik erori ote da boltsa edo burtsa?: hamaikatxo batek jakin nahiko dute, munduko ekonomilari ospetsuenak galdera horri erantzun beharrez bait dabiltza. Haiek ez, eta nik nola jakin ba!.

Halere, nere jakinezean, erorketa edo amilketa horren inguruko asmarketa batzuk plazaratzera nator, hala eskatu didatenez.

Goazen puntuka, eta era erraza batean.

1.- Gaurko burtsa, espekulazio mundua.

Akzio bat, negozio baten puska edo zatitxo bat; eta, honela, erran ohi da, akzionistek direla negozio horren jabe teorikoak, beraiek ezartzen dutenez kapitala. Eguneroko "boltsa ordu" horietan, akzioak saldu eta akzioak erosten ari dira. Merkatu bat da; zaldiak, edo barazkiak, edo portuetan arraina sal-erosten den bezala. Burtsan ere gertatzen da edozein merkatutan gerta ohi dena: aunitz baldin badago salgai, prezioa jausten joanen da; eta gutxi baldin badago saltzeko, eta jendeak erosteko interesa, nik gehixeago ordainduko nuke, eta hark pixko bat gehixeago ere... Orduan akzioen prezioa igotzen doa. "Oferta-demanda" lege hutsa. Merke erosi zituenak eta garesti saldu, ederki dago.

Nere ustetan, gaurko burtsa-mundu hortan ere, batipat "talde indartsuak" agintzen eta manejatzen dute. Eta seguraski, momentu hauetan "talde indartsu" batzuen batzuk beren akzioak saltzea erabaki dutela (lehen inbertitutakoaren onurak edo benefizioak lehen-bait-lehen lortzearren). Bapatean, akzio multzo handi bat salgai ateri da, eta saltzeko asko eta erosteko gutxi, goitik behera joan da kotizazioa. Alegia, tartean akzionista txiki askori behatzak harrapatuz. Gure baserritarrek ongi ulertuko dute errandakoa, haragiakin eta, gauza berdintsua gertatzen bait zaie, ageriko esplikaziorik gabe.

Beraz, burtsa jaustea "norbaiti" jaustea interesatzen zitzaiolako gertatu da. Hori horrela da, baina ez da dena.

2. Amerikanoak, nahiko larri.

Munduko ekonomia oso korapilatuta dago, dena elkar-erlazionatuta dago. Sare haundi hortan, Estatu batzuk besteak baino eragin haundiago daukate. Adibidez, Estatu Batuek. Hain xuxen, "Wall Street" izeneko kalean dagoen "Burtsa-merkatua" izanen litzateke mundu kapitalistaren gune eta termometroa, han kotizatzen bait dira munduko akzio garrantzitsuenak. Oraingoan ere, "Wall Street" burtsan eman zen erorketa honen hasiera, eta gero munduko burtsa guztiak kutsatu ziren, batipat beldurraren eraginez. Burtsaren erorketan hontan, Estatu-Batuetako ekonomi egoerak izan du eragin berezia. Estatu Batuetan arazo ekonomiko latzak sumatzen bait dira. Yankiak harro sumatu ditugu azken boladan, baina harro putz. Beren aurrekontuak egiterakoan, defizit edo zulo handi bat ateratzen zaio Estatu-Batu "guztiahaltsuari".

Alegia, hango estaduak ere diru-sarrera batzuk dauzka eta irteerak (gastuak). Eta gastuak sarrerak baino milaka milo dolar gehiago. Zer gertatzen da orduan? Ba, diru-iturriak gehitu beharko direla Nola? Zergak edo inpuestoak igoz jendeari Baina...

Baina, zergak gehiegi igotzen badira



jende xeheak, jende arruntak ez luke dirurik gastatzeko, eta produktuak kontsumitzen ez badira (poltsarako dirurik geldi-tzen ez bazaie), orduan produktuak nahi adina saldu ezinean geratzen dira (stock famatuak); eta produzitzen dena ez bada saltzen, ez dago irabazpiderik... Hau da: langileria zergaz "gehiegi" estutu ezkero, ekonomia ito larrian aurki leike, langile-ak produzitzeaz gain, langileak berak asko kontsumitzea nahi bait da.

Gainera, zergak igotzeak botoak ken-tzen ditu, eta Estatu-Batuetan laister botoetara doazte. Puntu hau ere ezin ahan-tzi.

Beraz, diru-iturriak gehitzeko larri labiltza, baina Estaduaren gastuen zama karagarria (mundu guztian muturra sartzea ez bait da aski, gero gastuei ere aurre egin behar bait zaie). Gastuen zama astuna, mundu zabalean zorrak, eta kobratu beharre-toak kobratzeko larri... Ekonomistek dio-en bezala: yankiak beren posibilitate rrealaren gainetik bizi dira.

Egoera horrek eragin zuzena eduki du burtsaren amilketan, nere ustetan. Hain xuxen, aurre-kontuak edo presupuestoak egiten ari zirela eman zen burtsaren behe-rakada, Wall Street famatuan.

3. Eta orain, igoko da berriz ere burtsa?

Erosteko momentu ona dela erraten di-gute, baina, egia, ez dut uste galdutakoa hilabete batzutan bederen errekuperatuko duenik. Hori, igotzekotan ere. Eta igoko da? Egia erran, dagoena baino beherago ezin da joan, orain ez bait dago akzio-saltzailerik, merkeegi daudelako.

Igotzen joanen da, pittinka pittinka. Gertatutakoa ahantziko da, berriz ere pe-zeta batzuk sartzera joanen da jendea, horrek anima araziko du aldamenekoa... Baina, noiznahi "gillotina" berriz ere jautsi leike. Erne behatzak!!

Nere ustetan, beti ere (eta espezia-listak oraingoz isilik egotea erabaki du-tenez):

a.- Gaur inbertitu eta bihar aberastea burtsan jokatuz, hori ametsa hutsa da.

b.- Joko hortan gogor sartzekotan, pixko bat bederen ulertu behar da. Ulertu, eta egunoro gainean egon.

d.- Eta hori ezin badugu, edo ez sartu edo gauza oso segurutik joka, burtsan zer-bait segururik baldin badago. Joko bat da, baina familitan irri eta negar aunitz eragiten duen jokoa. Eta egia da ere, a-rriskatu gabe ezer gutxi dagoela.

ANTTON.

1987/11/25

NON ETA ZERTAZ

"B.U.P." IKASTETXE BERRIA

B.U.P. irakaskuntzarako ikastetxe bat egin behar dutela eta Bortziri, Maldaerreka eta Baztango HERRI BATASUNAko kontzejalek agiri edo erantzun hau zuzentzen diogu herriari:

. Gure lurraldeari buruz irakaskuntza planifikazio orokor bat badenik ez dakigu eta baldin bada, nolakoa den ez dugu ezagutzen.

. Doneztebeko Udaletxeak hartutako erabakia demokrazi gabekotzat salagarria dela, ez duelakoz inori jakinarazi berak emandako pausoez, ezta ere bertzeen pentsakera eskatu, gero bertze Udaletxeak denak bereganatu nahiez.

. Nahiz eta gutarik zenbaitzuk (Herri Batasunako kontzejalak) akordio horri baiezkoa eman, gaia sakonki eta behar bezala aztertuz, hauexek dira hartzen ditugun erabakiak:

a. Denon ezagutze eta parte hartzeaz hezkuntza plangintza bat egitea behar beharrezkoa dela.

b. Hezkuntza plangintza sakon honetan euskarak lehentasuna izanen luke.

d. Herri ttikietako azpiegitura indartu nahi dugu eta ez bakarrik zonetako herriburuak potentziatuz, Nafarroako Gobernua politika hori nahi eta eramaten ari bait da.

Sinatzen dutenak:

Carlos Ciaurriz (Baztan)
Martin Garde (Baztan)
Fernando Martin (Elgorriaga)
Pablo Juanena (Oiz)
Jose Ramon Mindegia (Oiz)
J. Maria Latasa (Oiz)
J. Maria Urroz (Oiz)
Julen Anso (Oiz)
Enrique Erregerena (Ituren)
Jose Antonio Altxu (Ituren)
Faustino Mariezkurrena (Sunbilla)
Agustin Maritxalar (Lesaka)
Alix Mitxelena (Lesaka)
Luis Mari Olaetxea (Lesaka)
J. Emilio Txoperena (Lesaka)
Iosu Goia (Bera)
Kotto Alzuguren (Bera)
Martzial Teletxea (Bera)
Iosu Larretxea (Arantza)
Pantaleon Errandonea (Arantza)
Josetxe Larretxea (Arantza)
Xabier Etxague (Arantza)
J. Agustin Irigoien (Arantza)
J.Miguel Almandoz (Arantza)
Jose Ignazio Ubiria (Arantza)

Eta onartzen dute ere Kandidatura Independienteetako kontzejal hauek:

Miguel Mari Irigoien (Etxalar)
Juan Mari Iturria (Etxalar)
Birginia Arburua (Etxalar)
Gerardo Danboriena (Etxalar)
Jose M. Arburua (Etxalar)
Jesus M. Sanzberro (Etxalar)
Salvador Ansalas (Etxalar)
Oscar Txoperena (Igantzi)
Ricardo Sagaseta (Donamaria)

1.987 ko Abenduaren 9a.

OSASUN MENTALA

Malda-Erreka, Bortziri eta Baztan aldeko osasun-zentruak martxan hasi zirenetik, osasun mentalez ardurat" direnak ere zonalde honetan lanean ari dira.

Ttipi-Ttapa (denok dakizuen bezala) txoko guztietan sartu nahi duen aldizkaria denez ba, mundu horretan besterik ezin badu ere, aztarrikatzea nahi izan du, zuzen zuzenean hortan ari direnengana joz.

1.- T.T. Orain artean ez da osasun mentalaz gauza handirik entzun, beraz, zer da "Osasun Mentala" hitzarekin erran nahi dena?

- Osasun Mentaleko Taldea.- Osasun mentala ona edukitzeak hau erran nahi du: askatasunean "a tope", bizitzeko gai zerala, bildurrik gabe, behar ez diren inhibiziorik gabe, biziari ahal den eta "saltsa"

gehiena emanez eta aldi berean gozatzeko gauza izanez. Hau da, energia izatea, nork bere buruan seguritatea eta pakea edukitzea, hain zuzen ere gauzak aurrera eramateko edo zenbait egoerei aurre emateko sobera sufritu gabe, mamurik gabe. Aitzitik, alde ona ikusten ikasi behar da.

2. T.T. - Zonalde honetan Osasun Mentaleko zein arazo mota daude?

- O.M.T. - Beno, eritasun psikiatrikotan edo nerbiotakotan pentsatzen badugu eta kontutan izanik hauexek direla hain zuzen ere osasun mentala falta den adierazle handienak, zera erran dezakegu, arazoak beste zonaldetan ematen diren antzekoak direla, baina beste alderdi batetik begiratzen badugu badira zenbait puntu, hain zuzen ere oso larriak ez direnak baino sano bizitzen laguntzen ez dutenak, hau da bizi bera mugatzen dutenak. Errate baterako, zona hontako jende anitzen besteenganako sentitzen den zenbait sentimentu on, adierazteko zailtasun haundiegia edukitzea, besteenganako konfidantza eza eta arazoen aintzinean hala nola nor bere buruan ziurtasuna sentitzeko sobera edatea soluzio edo formula bide bezala.

3. T.T. - Arazo hauek zeri dagokiela iduritzen zaizu?

- O.M.T.- Gure ustez, hemen komentatzen ditugun kasu hauek zona hontako jendearen izateko eran eragiten dutela batetik eta bestetik berriz, bertako geografia berak eta ohiturak ere mugatzen duela. Hala, bertako pertsonak ez dira libre sentitzen baizik eta auzokoen kritika eta begirapenen beldur.

4. T.T.- Eritasun mentalei aurre hartzerik ba al dago?

- O.M.T. - Noski, ona izanen litzake jendea hontaz konturatuko balitz: garrantzitsua dela norberaren bizia eta bildurrak, konplejuak galtzea komenigarria dela. Beharrezkoa berriz, gure sentimentuak onartzea, sentimentu horiek besterenganatzea, adieraztea, hain zuzen ere harreman on batzun artean eta batez ere hartueman sakoneko mailean.



5. T.T.- Nola uste duzu ikusten dutela herritarrak osasun mentaleko arazoak? Zergatik?

- O.M.T. - Arazoa zera da, askorentzat osasun mentala ona izatea zera dela ez eroa izatea. Badirudi mundua horrela banatua dagoela, alde batetik "eroak" eta bestetik "eroak ez direnak" eta ez da horrela. Denok hobetu dezakegu gure osasun mentala, inork ez baitu osasun mental perfektorik eta bizian zehar pertsonalki hazitzen, betetzen joatea, ongi egoteko erabat da eta ez hori bakarrik, zoriontsu izateko bide bat.

Horregatik "erotasun" hitza desmitifikatu behar dugu.

6. T.T. - Orduan, zer da zuentzat "erotasuna"?

- O.M.T. - "Erotasuna", bizitzeko era anormal bat da, ia beti faktore biokimiko, organikoak eraginda. Egoera horretan izakiak bere askatasuna galtzen du neurri haundi batean, batez ere mundu irreal, fantastiko batean murgiltzen delako eta bere burua berriz lehengo egoerara itzultzea izugarri kostatzen zaiolako. Guk ikusten ditugun arazoen barnean "erotasunak" leku txiki bat besterik ez du hartzen, hain zuzen ere kontsultatan beste mota batetako kasuak gehiago ikusten dira. Erratebaterako: estutasun patologikoak, depresioak, gatazka psikologikoak edo bizitzako zenbait egoera gogorren aurrean moldatzeko arazoak izatea. Dena den, "erotasuna" eritasun mota bat da, eritasun "fisikoa" deitzen dena, desberdintasuna berriz, sintoma arrarogoak eta "pertsonalagoak" izatean datza. Baina, adibidez diabetes, pulmonia, urdaileko ultzera sendatu edo leundu daitekeen bezala "erotasuna" ere sendatu edo leundu daiteken eritasun bat da.

7. T.T.- Osasun Mentalean, familiak, komunitateak zer eragin du?

- O.M.T. - Familiak, gizarteko kolektibo guztiak bezala, bakoitzaren osasun mentalean eragin garrantzitsua betetzen dute.

Bikotearen bizitzatik hasiz, lagunartea, adiskidea, auzokidea eta herriarekin jarraituz, hau erran dezakegu: horietako bakoitzak eta heuren ondorengoak aberastuak izan daitezkeela. Erratebaterako zonalde hontako bikoteetan, partaide bakoitzak, bere lana, bere papera egitea mugatu beharrean, hau da: "bete duela" edo "senar ona" edo "emazte ona" dela sinistu beharean, komunikazioa, ulerkuntza, elkarhizketa, elkarlaguntza gehiago lantzen saiatzea egoki izanen litzateke.

Bikotearen bizia, familiarena bezala, Osasun Mentalerako erreserba eder bat izan beharko luke. Maitasunezko hartuemanen artean, beldurrak, estutasunak,ilusioak, etorkizunerako asmoak lantzeko txokoa.

8. T.T.- Herriko bizitzaren zein gauzak eragin dezakete pertsonaren osasun mentala galerazten?

- O.M.T.- Osasun Mentala ona izateko, herriko biziak zenbait gauzetan laguntzen du ("aurrez-aurre"ko hartuemanak, elkarlaguntza handiagoa, naturarekin harreman zuzenagoak eta gizakiaren sustraietatik hurbil egoteak). Baina puntu okerrak ere baditu, erratebaterako sanoak ez diren ohitura batzuk izatea (sobera edatea edo txikiteoa) edo bizitza ulertzeko modu sinplea edo erraza edukitzea (adiskide bat hau izanen litzateke: senar aunitzek emakumezkoa etxea eramateko eta bertako lanak egiteko besterik ez dute ikusten). Herri mailan berriz, ez da batere ona osasun mentalerako hainbeste zurrumurru, marmari, kuxkuxeri egitea besteen biziarekin sartuz ezta honelako gizarte batean sortzen diren arazo ekonomikoak, hainbeste istilu izatea familia edo eta barride, auzokoen artean, ondasunak, lurrak edo antzeko arazoak direla medio.

ZER DA HIES-A ?



Birus batek sortarazten duen eritasun bat da, hain zuzen ere gorputza defentsarik gabe uzten duen eritasuna.

Zeinek izaten ahal du eritasun hau?

. Kutsatuak izan diren pertsonen artean gehientsuenak ez dira eritasunak hartuak izaten. Hala ere pertsona horiek bertze batzuei kutsa diezaiokete birus hori.

. Kutsatuak izan diren pertsona horietariko batzuk bertzerik ez dute sufritzen eritasun hori.

Nola kutsatzen da?

. HIESez kutsatua dagoen pertsona batekin, preserbagailurik gabe harreman sexualak izanez gero.

. Kutsatu baten odola ukitu duten orratz, xiringa edo bertze gauza zorrotz bat desinfektatu gabe erabiltzean.

. Kutsaturik dagoen emakumeak haur jaio berriari pasatuz.

Eta ez da kutsatzen:

. Eskua eman, ukitu, besarkatu, muxu emateagatik.

. Ezta, malkoa, izerdia, eztula, dominiko egiteagatik ere.

. Ezta arroparen bidez ere.

. Ez janari, ontzi, edalontziengatik ere.

. Ezta, igerileku, bainu eta abarretan ere.

. Insektuen hozkak ere ez dute eritasuna kutsatzen.

Nola jakin daiteke bat kutsatua dagoela?

Odoleko analisisa egin ondoren. Hain zuzen ere gorputzean birus horren aurkako antigorputzak baldin badaude, pertsona hori kutsatua dagoen seinale da.

Nola aurre hartu?

. Emakume edo gizon ez ezagunen arteko harremanetan preserbagailuak erabiliz.

. Ebakiak sortaraz dezakeen harreman sexualik ez izaten saiatuz.

. Beti ere xiringa eta orratzak behin erabili eta botariz edo ongi esterilizatu ondoren ibiliz (gutxienez 20 minutu alkoholetan, lixiba edo ur irakinetan edukiz)

. Hortzeskubila, bizarmakina eta abar nork berea erabiliz.

"SIDA" EZ DA KASUALKI HARRAPATZEN

EUSKARA, IRAKASKUNTZA eta UDAL GESTIOA



Oronoz Mugaireko
BUP eskola

Ohiturezkoa dugu, paperetan ari geranok, irakurleei arazoak azaldu eta esplikatzea, ...ohitzen da...eta gustora tradizioarekin jarraituko nuke, baina ezin dut.

Euskara arloa, iraskaskuntza, udal gestioa, hiru arlo ezberdin, elkarrekintzatuak seguraski eta, teoriz bederen, arrazionalizatuak hiruak, edo arrazionalizadaitezkeenak, diotenez.

Arrazionaltasuna erabiliz euskara, hizkuntz bat denez, aberastasun maitagarria kontsideratu dut, lan ugaria eskatzen duen aberastasuna.

Irakaskuntzaren arloa, berriz, arlo berezia dugu, maina eta errestasun ugariak eskatzen dituen arloa, arrakasta lortu nahi bada behintzat.

Udalgestioa, aldiz, bere arrazionalizazioa, elkarte giroa derrigorreztatzen du, mankomunitateen antolamendua eta abar.

Baina -baina ugariak beti- pertsonekin ari geranean paperetan eraikitakoak -plangintza izenekoak- ezer gutxirako balio dute, errealitatearen egiak dira beti agintariak. Pertsonek ez dute aurreko edo beste opinioneko pertsonak pertsonak gisa bizitzen eta etsaitzat hartzen dituzte, jadanik beti. Hau inkisizioa!!!!

Horregatik, nere ustez, dugun egoera dugu, hiru arlo hoiek ikutzen edo elkarlotzen duen egoera, hain zuzen ere. Hara adibide batzu:

Historia zehatz batean luzatu gabe hor dugu, erdi irakaskuntzan, hainbeste goraberak merezi izan duen institutoa. Duela urte batzu eta Baztango Udalaren menpean ireki zen "Valle del Baztan" izenekoa, egungo Nafarroako Gobernuaren pean kokatu behar den institutoa. Ez da, dirudienez, instituto soil eta ximplea, ez, askoz ere konplexuagoa izan behar Doneztebe eta Baztan arteko ohore borrokaren atxiki ergela bihurtu bait zaigu. Ohore garesti baten kakua, noski, zeren Gobernuaren irrifarren artean Udal biak milioiak eskeintzen dituzte...Pentsa, gaurregun, 1987ko azaroan, institutoan, historiaurreko fotokopiadora bat dutela diote, mapak eta irudiak izugarri gaizki kopiatzen duen fotokopiadora, eta apunteak ikasleei kobratu behar zaizkie beste materiala tantanka lortzen duten bitartean...milioiak...eta urte asko ez direla Baztango udalak beste udalen laguntza eskatu zuenean ez zuen inorena lortu, noski, "Valle del Baztan"delako instituto m_u_n_i_z_i_p_a_l horrentzat...Ergelkeria

ez ote?.

Dena den, nola edo hala, institutoa aurrera doa, elebitasun izkutuen bi lerroak finkaturik, euskara asignatura optatiba bezala eta ordutegitik kanpo ematen delarik eta batxilergoa euskaraz egiten denik inun aztarnarik utzi gabe, ofizialki mailan, zeren, jakin dugunez, ikasleak gaztelaniez egingo balute bezala agertzen omen da. Egia izanen ?.

Seguraski horregatik dute Doneztebeko Udalekoak hain interesa garbia, euskeraren lerroa bulkatzeko, pedagogia mailan eskeintza zabalak egiteko...Prentsan agertutako berri hura, nola zen? "EL ALCALDE DE DONEZTEBE ABANDONA UNA REUNION TRAS HABLAR UN CONCEJAL EN EUSKARA" esajerazio bat izanen zen...Egia da guri, Ttipi-Ttapakueri hain zuzen, eskutiz bat ez digula onartu, zergaitik eta euskeraz idatzia zegoelako. Minduak gara, ingelesa ez bait dugu menderatzen! Colin jaunak esango du berriz, lasai ederrean, "Desarrollo generoso de la ley del vascuence" dugula (Navarra hoy, 17 de noviembre de 1987). Mundu honetan biziko ote?.

Eta jaun eta jaben artean gerala ikusirik hirugarren puntua ere ikutu beharko dugu, "Navarra hoy"ale berberan agertzen ziren Tajadura jaunaren asmoetan oinarri turik. Udal gestioaren aurrerapenarako, hobekuntzarako, erakunde lokalen batasuna komenigarria omen da, bide bakarra...Eta horrela bada zer ari da Gobernua bi erakunde lokalen arteko eztabaida permititzen eta bulkatzen? Ez al da bera gauza funtsezko kriterio pedagogikoak azpimarratzeko eta instituto baten kokapena salmentatik ateratzeko? Hori al da arrazionalizazioaren bidea?.

Baina institutoarena adibide txar bat besterik ez da, New York ondorengo udalen eztabaida kasua, arrokeri kasu bat. Makurrago da, nere ustez, arrokeria hori beste udalekin, txikiagoekin, erabiltzen denean, prepotentzia nagusitzen denean zeren, orduan bai, ez dudarik egin, arrazionalitateak iparra galtzen bait du eta nahiz zenbait arloetan elkarlaguntza, mankomunitatea, logikoagoa izan arren, no hay tu tia, Mari Loli! Ez da hori ni baino gehiago giroan sartzen gara eta nipatras!

Gainera ez daiteke horrela izan. Herri txiki baten alkate batek beste era batez ikusten du arazoa. Bere iduriz ezberdintasun ideologikoaren ondorioa leike afera, hau da, Doneztebeko alkate jaunak, eta bere taldea seguraski, ez oposizioa, euskara hizkuntz bat bezala ikusi beharrean etsaien ikurrina bezala ikustea eta ez nau harritzen zeren batek baino gehiagoek pentsatu dute nitaz, jakin dudanez, Ttipi-Ttapan ari naizen ezkero HBtarra naizela. Egia esateko, eta Jainkoari ezker, ez dit inork karneta eskatu, ez bait dut. Gehienetan HBtarrak dira euskararen aldeko langileenak, sigletan ari behar badugu, baina hori besteen akatsa da, bada, ez inoren erru faltsua. Del Burgok bere hauteskunde agirian euskalkien alde lana egingo zuela aitortzen zuelarin poz handia hartu nuen nahiz, egia osoa esan behar badut, instanterako zalantzan geratu noraino hitz hauteskundetarrak izanen ziren galdetuz.



Edozein mankomunitateko zinegotzi tipikoa.

Izugarri gogorra, penagarria, izanen zen ideologi ezberdintasunak desmadre edo gauzak ondo ez egiteko arrazoi faltsua izatea. Batez ere eta azken funtsean udalgizonek nahiz botere delegatu izan, beraien hauteslekin bakarrik kunplitu behar

San Martin
Nekazal Eskola

ez dutelako, herri osoarekin baizik, eta Iruñeak uzten dien araberan zeren, zoritxarrez oso mugatuak izaten dira, edo zorionez?.

Baina ideologia dena ez dela adierazteko Baztango BA eta HBk egindako manifestapenak har ditzagun, Lander Santamariak eskeini digun laburpenaren bitartez. Ez dakit zein izanen den Doneztebeko HBtarren postura, institutoari buruz, baina garbi dago Donezteben eraikitzea lehen alkate zenaren idea izan zela, hau da, EAko partaide batena, eta gaur gehiengoa dutenak idea jaso eta bereganatu egin dute.

Ongi. Baztandarrak, berriz, HB eta BAtarrak hain zuzen, institutoa Oronoz herritik mugitzea "grave riesgo"kontside ratzen dute, "de vital importancia", eta "por su trascendencia" talde guztien "apoyo unánime" jaso behar duen jarrera, "con independencia de ideologias" (?)

"El hecho de que Santesteban ofrezca gratis los terrenos para ubicar allí el BUP no debe ser un obstáculo insalvable. Estiman BA y HB -dio Landerrek- que, sin animo de entrar en un mercantilismo absurdo Baztan también puede ofrecerlos, incluso "en condiciones más ventajosas " para el Gobierno de Navarra, "si fuera necesario". Este asunto debe obtener "carácter prioritario" sobre otros proyectos municipales posibles". Dagoeneko ez dakit zuek baina nik instituto batetaz ari garan edo Disneylandia berriro artean sartu zaigu galdetzen diot nere buruari. Eskerrak " mercantilismo absurdo" batean ez garala sartu.

Benetan, bai Doneztebeko udalkideak nola Baztango Udalekoak, buruan sentimendu lokalista baztertzeko gauza izanen balira, bat etorri eta biek eskeinitako proposamenak erretiratu beharko litzaizkete. Bete beza Gobernuak berea den erresponsabilitatea!

Penagarria Gobernuaren jarrera eta lotsagarria udalak eta alderdiak eskeinitako zirkoa. BA eta HBtarrek "Baztan por el BUP en Oronoz" lemapean manifestapenarekin aurrera jarraitzen badute baliteke Donezteben besteren bat antolatzea eta institutoko ikasleak eta irakasleak, hala nola gurasoak, bi bandutan banatzea. Dena kriteriopedagogiko baten hobarakuntzarako, seguraski! Bistan da!



Mugimenduak ez du zahar erazten

Attona, atsua
atautxi, amatxi
jaun, anderea
kasu gorputz horri!

Hara hemen zenbait ariketa gorputza erdoildu ez dadin, eta bere betiko egin beharrak ez atzentzeko.

1. Zapi bat puntetatik hartu eta lehenbizi ezkerreko eskuz alde batera bildu erazi, gero eskuinekoarekin eta ondoren biekin.

2. Jarrita zaudelarik, eskuak gurutzatu eta eskuzabala kanpo aldera paratuz besoak luzatu, lehenbizi aurre aldera, eta gora, gero eskuin eta ezker aldera.

3. Jarrita zaudelarik ere, eskuinarekin lurra edo orkatila ukitu.

4. Jarrera berean egonik, lehenbizi gorputza eskubitara jiratu eta gero ezkerretara beti ere aulkiaren gibelaldea erreferentzi puntu bezela hartuz.

5. Bizkarra aulkiaren gibelaldean sostengatuz burua alde batera eta bestera gora eta behera mugitu.

6. Adiskidea bilatu eta bi lagunen artean egin daiteke ariketa hau. Beraz, eskutik hartu eta poliki poliki belaunetatik makurtzen joan.

7. Jarrita, belaun bat altxatu eta saiatu eskuez hartzen, oina aulkiaren gainean paratu, lasai-lasai ez dago presarik eta.

8. Tenisko pelota hartu eta oin hutsik oin zolarekin ahal den eta mugimendu gehienak egin.



BAI ETA EZ

BAI Ariketak egiteari baina poliki, presarik gabe egin.

EZ Agudo egin behar diren ariketei, ha da arnasa ezin hartu uzten gaituztenei

BAI Taldeka eta solas eginez egin dezakegun ariketei.

EZ Min ematen diguten ariketei.

BAI Ariketa motza eta egunero egiten denari.

EZ Bapatean zuzen paratzeari (kontuz txo ratzearekin.

BAI Ariketa errezei.

EZ Izardi patsetan gelditzeari.

Ez da zaila, ez?
Zauli izatea zaindu.

Berriki lagun batekin izandako solasaldiaren ondoren, hartu dut artikulutxo hau idazteko erabaki tinkoa. Ez da oraingoa gai honi buruz gogoetak egiteko asmoa, baina gauza bat edo bertzea zela, beti gerorako uzten nuen. Orain, lagun horrekin egon óndoren, papertxo batetan zirriborratu nahi nituzke ene kezka eta buruhausteak.

Sar nadin, bertzerik gabe, zuzenki gaian. Hauxe litzateke, laburki erratekotan mamia: Euskara batua dela alde batetik eta gure ezjakintasuna bertzetik, Bortzirietako euskalkiak (nafarrerak) dituen berezitasunen galera.

Sarreratxo honen ondoren, ia kokatzen ditudan gauzak berezko tokian. Izan ere, izenburuak, agian, euskara batuaren aurka nagoelako inpresioa eman liezaioke norbaiti. Baina ez! Ez da hori kontua. Ezta guttiagorik ere.

Euskara idatzian batez ere, erizpide orokor batzu jartzea behar beharrezkoa zen, erregela gramatikalak ezarri etab... bertze hizkuntzetan aspaldidanik egin zuten legez (gaztelaniak duela mende t,erdi egin zuena jar dezagun lekuko) euskara salba zedin. Erabaki hauek haseran detraktore aunitz izan bazituen ere, orain gutti dira ondorioak onak izan direla onartzen ez dutenak.

Euskara batzeak, ordea, ez du erran nahi gainerako bide guztiak ixten direnik, azken batean, euskalki desberdi-

nekin osatzen baita batua. Eta hor sortzen dira ene ustetan problemak.

Aunitzetan gertatzen zaigu kanpotar batekin topo egin eta solasterakoan, gure ohizko hizkera modua aldatzen dugula. Ez dugu urruti joan beharrik adibideak bilatzeko. Nahikoa dugu piska bat gibelera begiratzea eta udan, AEK-k antolaturiko ikastaroetan biltzen zen jendearekin gure jolasteko modua gogoratzea.

Bortzirietan, orain arte bederen, aniztasuna adierazteko, "anitz" edo "aunitz" hitzaren bidez izan ohi dugu, Gipuzkoa aldean "asko" erabiltzen duten bezelaxe. Ba, konprobaturik daukat gehiengo haundi batek, Gipuzkoar batekin solasterakoan "asko" hitza erabiltzen duela. Berdin gertatzen da "bortz" eta "bost"-ekin, "aintzina" eta "aurrera"--rekin, "beste" eta "bertze" edota "dut" eta "det" erabiltzerakoan. Azken kasuan larriagoa da gainera kontua, ze, euskal aditz batua liburura jotzen badugu, "dut" agertzen da eta ez "det".

Pronuntziaziora bagoaz berriz, gauza berdintsua gertatzen da, edo beharbada nabarmenagoa da gure nortasunaren galera. Hainbat hitza "j"-rekin idatzi behar izan arren "y"-rekin pronuntziatu ohi ditugu, gure artean ari garenean bederen. Adibideak aunitz dira baieztapen honen adierazgarri: Jan, joan, jo, Josu, Jon, jarri, jaio etab. Bide honetatik jarraituz bildur naiz, luze gabe, nafar "ya" xamur eta musikala euskararen erreinutik ahantzi eta desagertua izanen ote den.

Behin hona iritxiz gero, bertze kontu bat agertu gabe ez nuke geratu nahi, nahiz eta azaltzera noan arazoa ez den gugan bakarrik gertatzen. Zein ote da, bada, "sida" haina erroturiko eritasun hori? Galde lezake norbaitek bildurraren bildurrez. Baina lasai, "sida" bezain kutsakorra izan arren ez da hain arriskutsua, izan ere, ondorio bakarra, poliki-poliki hizkuntza aldatzen joatearena baita. Hori geldiezina ordea, ezinbestekoa, nahiz eta batzuri gehiegi gustatzen ez zaigun. Hizkuntza, berez bizia duen zerbait da eta bizia duen oro etengabe aldatzen doa; batzutan itxuraz eta bertzetan izaeraz. Honek ez du itzulerarik, garbi dago. Halere, horrek ez du erran nahi deus egin gabe geratu behar dugunik, hemen denok baitugu zer erran eta zer eginik.

Berriro harira itzuliz, ager dezadan adibidetxoren bat errandakoa egiaztatzeko.

Euskara batua zela eta euskara idatzirako arau batzu jarri ziren. Ondorioz eta orohar, "bait" aditzatik berexia idazten da: bait dugu, bait gara, bait genuen etab... Ahozkatu ostera, biek batera egin beharko lirateke, batzerakoan "t" hori "k" bihurtuz: baikorra, baikenuen, etab.

Orain, gauzak gehiago nahasi aintzinatik ia gai naizen agertu nahi nituen konklusio biak laburbiltzeko.

Lehena: konplejo eta gainerako prejuizio merkeak ahaztu behar genituzke eta, mendeetan zehar mantendu ditugun hitzak ez galdu ezjakintasunaren eraginez. Eta horien lekuan bertze sinonimo batzu erabili nahi izanez gero ez ditzagun har hitz berri horiek gurea baino garbi eta zuzenagoak direlakoan, aukera bat direlakoz bakarrik baizik.

Bi: Alfabetatze, euskalduntze eta, batez ere, hizkuntza munduan dabiltzan jendeengana doa zuzendurik ene adierazpen hau. Honen bidez eskatu nahi nieke jabetu daitezen euskararen munduan duten ardura eta eraginaz. Gurea bezalako hizkuntza ez normalizatu batetan, izugarria da beurek duten eragina eta zati haundi batetan haien esku dago datozen generazio eta euskaldun berriak erabiliko duten euskara. Denok dakigu gaurko textu eta idatzietan nafarrerak duen presentzia eza. Horregatik da garrantzitsuagoa beuren lana. Haien ardura baita gure kale eta batez ere baserrietako sukalde zaharretan entzuten diren hitza eta esamoldeak bildu eta horien berri, geletan, ikasleei ematea.

ASSURA



Bazen garaia!

BORTZIRIETAKO EUSKARA BATZORDEA

Aspalditik espero genuen berri bat entzun dugu azken honetan Bortziriak eskualdean. Azkenean Bortzirietako Udal, ikastetxe, elkarte eta euskararen alde lanean ari den hainbat talderen artean osaturiko batzorde batek euskararen arazoaz arduratzeko konpromezua hartu du.

Talde hau egitearen beharra euskaltzale talde batek adierazi zion Etxalarko Udalari arrazoi hauek aipatuz:

- *Urtetik urtera kalean gero eta euskara guttiago entzuten dela.*
- *Komertzio eta establezimendu publikoetan gero eta erdara gehiago entzuten dela eta euskararen beharrik sumatu ere ez dela egiten.*
- *Hau dena ikusirik eta nahiz eta "Ley del Vascuence" delakoa denok txartzat jo, gure herrietan ez dela lege hori ere betetzen.*
- *Bortzirietan azken hauteskundeetan aurkeztutako talde guztiak abertzaletzat jotzen dutela heuren burua.*
- *Oraingo udaletxeek ez dutela inongo indarrik edo lanik egiten egoera hori aldatzeko eta benetan abertzaleak egiten gaituen tresna, "euskara" alegia indartzeko.*
- *Nafarroako egoera ikusirik eta euskara bertako hizkuntza bada, ez dugula inolaz ere Gobernuak eginen duenari itxoiten egon behar, eta eskualde honek, Bortziriak, izan behar duela nolabait iniziatiba eraman behar duena, euskalduna delako hain zuzen ere.*

Honen aintzinean Etxalarko Udalak, hartu behar diren erabakiak edo neurriak lehen bait lehen hartzekoak direla, eta efektibitate minimo bat izan dezaten Bortziri mailan hartutako erabakiak izan behar dutela adierazi zuen, horrela indar gehiago eta kanpora begira ere nolabaiteko indarra nabarmenduko bait litzateke. Helburu hau lortze arren, Udal guztietara gutun bat bidali zuen, bilera bat konbokatuz eta bidenabar arazoa herri osoarena zela kontutan hartuz, herri guztietan euskararen alde ari diren talde, elkarte, e.a.ri gonbitea pasatzeko eskatuz.

Bilera hori Etxalarren egin zen eta bertara jende ugari agertu zen. Batez ere ageri ziren beharrei aurre egiten hasteko nolabaiteko antolakuntza beharrezkoa ikusten zelako, lan arloak lau zati garrantzitsutan banatu ziren, horietako bakoitzean jendea sartuz:

1- Administrazioa.
2- Irakaskuntza.
3- Euskara zerbitzua.
4- Helduen euskalduntze eta alfabetatzea.

Gero taldeak osatzerakoan azken bi arloak talde baten gain geratu ziren.

Taldeak, erakunde bakoitzak bere ordezkaria hautatu ondoren honela geratu ziren:

IRAKASKUNTZA

**Kontxi Erro (Lesakako Ikastola)*
Jesus Altzueta (Berako Lanbide Eskola)
Arantxa Agirre (Berako Sagrado Corazón)
Isabel Ordoñez (Berako Ikastola)
Pello Ordoñez (Berako Ikastola)
Ines Eraso (Igantziko eskola)
Xabier Yarnoz (Lesakako eskola)
Joxe Mª Remiro (Berako eskola)
Mª Carmen Lanz (Berako eskola)

ADMINISTRAZIOA

**Pilar Txueka (Arantzako idazkaria)*
Txoltxan (Lesakako kontzejala)
Modesto Maia (Lesakako Udal langilea)
Rosa Sein (Berako Udal langilea)
Axun Maia (Etxalarko udala)
Felisa Goienetxe (Igantziko kontzejala)
Xalbador Fagoaga (Berako kontzejala)
Xabier Etxagüe (Arantzako kontzejala)
Migel Mª Irigoien (Etxalarko alkatea)
Oskar Txoperena (Igantziko kontzejala)
Birginia Arburua (Etxalarko kontzejala)

EUSKARA ZERBITZUA
EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEA

**Mikel Legarra (Bortzirietako AEK)*
Karlos Santiago (Arrano Elkartea)
Joxe Luis Telletxea (Bortzirietako AEK)
Bittori Telletxea (Gure Txokoa Elkartea)
Pello Apezetxea
Joxe M. Irigoien (Ttipi-Ttapa)
Patxi Iñigo
Kotto (Berako kontzejala)
Edurne Rekondo (Astoputza)
Inaxio Etxepare (Astoputza)

Nola nahi ere zerrenda hauek beti idekiak egonen dira.

Gero, funtzionatzeko modu bat ezarri zen, hau da: azpitalde bakoitzak bere kaxa eginen ditu bilerak eta lanean jarraituko du, elkarren artean informazio pasatzeko eta koordinatzeko talde bakoitzako lehenengo pertsona hautatu zelarik. Baino bi hilabetean behin guttienez batzarre orokorrak eginen dira, funtzionamendu orokor bat eramateko. Azpitalde bakoitzak bilerak egin ondoren, badakigu dagoeneko lan zerrenda batzu eta ideia berriak daudela:

- *Errotulazioak euskaratzea.*
- *Azterketa soziolingüistikoa.*
- *Eskoletan euskaraz ematen diren ikastorduak neurtzea eta eztabaidatzea.*
- *Aste kulturalak.*
- *Alfabetatzeko kanpaina bereziak.*
- *Ttipi-Ttapa aldizkaria bultzatzea.*
- *Segapoto Irratia martxan jartzea e.a.*

Nola nahi ideia hauek zertan geratzen diren ikusteko eta bai taldeen nola Udalen partetik norainoko konpromezua dagoen ikusteko denbora gehixeago beharko dugu, beraz Ttipi-Ttaparen hurrengo alean, berri on honetaz gehiago eta zabalago informatuko dugu.

1992ko Urriaren 12an

PilarißA eguna

UAINAS - Gutxi izanen dira munduan nere asu hontan egondakoak...eta egia esan be-ar badut ez naiz harritzen. Bost bat ur-e luzeak koinazoa ematen daramat, egungo ozaren ordainarentzat..., ni naiz nere urraren profeta!, arrotasunik gabe.
Eau hartan idatzi nuen bezala PSOEren fi-ikitoa folklorikek sinatu dute.
Orduan, ez nituen datu zehatzik, intuizio at eta soila, bakar bakarrik, bi oinarri inpletan eraikia gainera: 1- Lola Flores-k ez duela Agustinak baino indar txikia-orik-. Zergazerbitzuak Euskadin eta Ha-ienda Foralak Nafarroan diren antzeko Mi-isterio de Haciendak Madrila erdian hasi uten kaleoa, ez ordaindutakoak bapatean obratu nahi ziotela eta...hura kaleoa!!!

-¡Por mis hijos, por mi patria y por mi Rey!,sasi-sozialista hoiek kabroi batzu akerraren barkamenak eskatuz) dira!- ko-entatu omen zuen.
Eta motza ez, alperra gutxiago, babesgabe-o gerra bati hasiera eman zion, Folklori-o Eta Antzekoen Sindikatua (SFS) antolatu uen. Handik aurrera bihotzerrebistek baz-a ederra izan zuten, gutxi gora behera ilioika irakurle zituzten astekariak.
Bigarrena, QUINTO CENTENARIO famoso hark satu zuen. Ez dakigu nondik nora interna-ionalistak behar zuten sozialista espai-olak INPERIOAREN sarean erori ziren eta, JOPE MORENO!, programa marabilosua asmatu uten, hegoameriketarren malaostia oroko-ra aurka bildu arte, aizu! Jo eta ke! Fernando katolikoak eta katolikoa ere omen en Frantziskok gustora baiztatuko zuten rograma.
Noski beste bultzatzaileak izan direla ere, baina hauek izan dira, dena dela, go-orrenetarikoak, Monkloako lehendakari auna zuzen zuzenean jo dutenak: Fidelek uroak suministratzetik utzi zionean, onoa ezin gainditu...Rocio Juradok Felipe egoseñoritoz jantzirik, behor gainean, UINTO CENTENARIO inaugurazio atarian, akar bakarrik utzi zuenean.

1992ko Urria Rocio Jurado, Felipe plantatu ondoren

-Folkloriken garrasia ahuntzaren gauerdiko eztulen berdina zela uste zuen, horrek-komentatzen zuela -ELE LA GRAZIA!!!-esaldi famatuarekin borobilduz.
Harrezkero botua nork eman behar dio? Eta botorik gabe ez dira deus....
Botuekin hasi omen zen dena: Zeramakiten bidea Yankegia zen, hamabost egunetik in-kesta bat eskatzen zutelarik. Horrela ja-kin omen zuten Gibraltar espainola izan behar zuen bezala, Ceuta eta Melilla es-painolak gorde behar zutela, behinere oroitzen ez naizen mendetatik horrela zirelakoz. Gero Ameriketena etorri zen, Las Casas, Cabeza de Vaca eta antzeko beste batzu goraipatuz, behin eta berriro adibidetzat hartuz, mesede ederra egin ziotela sinistu zuten -espainolak amerikanuei- eta aurkako iritziren bat handik ailegatzen bazen inkesta bat antolatzen zuten, penintsulan, nun argi eta garbi penintsularren opinionea jakin. Jadanik beti CENTENARIOaren aldekoa, Espainiako paper historikoaren aldekoa ateratzen zen....hainbat , ze askok galdetzen zioten bere buruari, gu ailegatu arte zer ziren haiek?, eta horrela, arrotuz, arrotuz, Hispaniko Herrien Feder akuntza proposatzera jo arte.

Bestalde, hispaniko izatea zer zen ez zekiten, hau da, inkesten bitartez jakin nahi izan zuten, eta inkestak burokraten artean banatzen zirela konturatu orduko beranduegi zen: Madrileino erdiak konkistatzailez jantzirik bizi ziren, Castellana burdin soinaje bat zen!...eta periferia osoa inditarrez...hegoaldekoak eredua Kariben oinarritu zuten; iparretarrak, aldiz, patagoniarrak eta inkak maiteagoak zituzten -haiek edo haien jantziak?-. Total, Kantauri itsasbazterreko mendiak "llamez" bete zirela.

Horretarako gortean "sevillanak" dantzatzen jarraitzen zuten, folklorikak lanpetuz eta zergapetuz, CENTENARIOaren ekintzak flamenkoan oinarriturik -Hark burua altxatu balu!!!-.

Eta bat batean, inauguraziorako aste bat gelditzen zelarik, ZAS! GREBA OROKORRA! castañuelen greba....¡ELE LA GRAZIA!, berriro.

Eta Jainkoari eskerrak! Zeren, inaugurazioa egin ezkero, hispani-ameriketarrak aurka azaltzeko prest omen zeuden, ekintza guztiak boikotatzeko, Espainol Inperioaren pasadak, gehigarrikeriak, lapurketak eta hilketak azpimarratzeko,...!...bai ote?

Ez dudarik egin!



Ameriketarrak Quinto Centenarioaren harrera prestatzen

BAZTANGO HARANA ETA BERE FOLKLOREA

Euskal herria zazpi eskualdeek osatzen ute, lau Hego aldean (Espainako estatuaen menpean) Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia ta Araba, eta hiru Iparraldean (Frantziao estatuaren menpean) Behenafarroa, Lapudi eta Zuberoa.

Baztango harana Nafarroako Ipar aldean ago, hamabortz herriek Udaletxe bakarra satzen dute. Hamar bat mila pertsona bizi ira haran honetan, gehienak nekazariak ira, euskal hizkuntzarekin harreman onak dukitzen dituzte, baita ere Frantziako uga bazterreko bertze herriekin.

Arizkungo herria izan da betidanik, Bazango folklorea hobekien txiki den lekua, urasoengandik semeengana zuzenean pasauz.

Baztango folklorea aberatsa da, Nafarroko aberatsena eta gizarte dantzatan sarua izanez, horrela klasifikatua dago:

UTIL DANTZAK.- Izenak erraten duen bezela util edo gizon dantzak dira, hamabortz àntzak osatzen dute, ezagunenak; Hiru untukoa, Tellarin eta Muxikoa dira, danza guztiak lerro borobil bat eginez danzatzen dira, ordularien horratzen aurka biliz, bi lehenbiziko eta bi azken danzariak herri bakoitzeko Daminausi eta Damuinausi lagunak dira. Dantza hauei agur ginez ematen zaie hasmenta, Hamabortz herietako besta nagusietan dantzatzen dira.

RRI DANTZAK.- Izenak erraten duen bezea, horrelako dantzak irri egiteko dantzak ira, hamairu denetara eta ezagutuenak; burdi dantza, Itsas dantza eta Zartain antza. Ez dago egun berezirik dantzatzeo, edozein afari edo bazkalondotan dantza aitezke, baita ere Kisu edo Garratu bestetan.

AGAR DANTZA.- Hiru Sagar dantza dira ezautuenak, Amaiurkoa, Erratzukoa eta Arizungoa, dantzatzeko tenorea inautetako asearte atsaldea izaten da, eta bi Damuinasi eta hauen bi lagunek dantzatzen dute.

SOKA DANTZA.- Ingurutxo dantza, neskak eta mutilek dantzatzen dute, herri guztiak parte hartzen du, herriko enparantzan Damuinausiak bere laguna eta hauen andrelagunari, agur bat egin ondoren, herritar jendea sokan sartzen da, herri guziei itzulia emateko, itzulia eman ondoren, berriz enparantzan karakol bat eginez akitzen da dantza hau. Inaute eta herriko besta nagusietan dantzatzen da.

GAITA.- Neska eta mutilek dantzatzen dute, lau zatik osatzen dute dantza hau, Gaita, Fandango, Purrusalda eta Zortzikoak. Bestetan eta inautetan dantzatzen da.

ERREGINAK.- Hamabi eta hamalau urtetako neskatxak dantzatzen dute Maiatzako igande

guztietan. Horrelako bestak "Maiatzako Erregina" edo "Zuhaitzari Kultoa" izenak hartzen ditu ere.

BERTZE BESTA AIPAGARRIAK:

EGUN TTUN TTUN.- Inautetako aintzineko ortzegunean ospatzen da. Haurren besta da. Goiz goizetik ibiltzen dira etxez-etxe puskak biltzen, (ziztorra, zingarra, arraultzak eta dirua, bazkaltzeko orduan, biltzen dituzten puskak jan ondoren, herriko enparantzan mutikoak zaku batzutan sartuz oilar bila abiatzen dira, oilarra harrapatzen duenak "Mayordomo" izena hartzen du, Oilarra bere Maisu edo Andereñoari opari bezala ematen dio, eta oilarrak lepoan eramaten duen zinta neskatxa bati ematen dio, neskatxa honek "Mayordoma" izena hartzen du. "Mayordomoak" nola "Mayordomak" beren lagunak izendatzen dituzte bakoitzak bat eta talde txiki hau arduratzen da arratsaldeko dantza edo bestari hasmenta ematen.

Horrelako bestak "Oilar eguna", "Oilar dantza" edo "Jueves gordo" izenak hartzen ditu.

IÑAUTEAK.- Hauts eguna baino hiru egun lasterrago ospatzen da. Igande eta astelehenean herriko mutilak etxez-etxe ibiltzen dira puskak biltzen, eta arratsaldeetan herriko karrikatan ateratzen dira mozorroturik.

Astearte eguerdiko hamabietan "Hartza" herriko karriketan barna agertzen da bere "Hartzazainarekin" baita ere "Nobioak", "Arperoa", "Damak" eta "Mozorroak" azken hauek Mozorro dantza dantzatuz.

OLENTZERO.- Olentzero Euskal Herriko pertsonai jator bat dugu. Ogi bidez ikazkina omen zen eta horregatik mendian bizi. Eguberri bezperan herri bazterrera agertuz, batzuk diote Kristautasuna adierazi nahi zuela, bertze batzuk, berriz, honen aurka zebilela.

Horrelaxe agertzen zaigu gaurko Olentzero ere, toki batzutan trapuzko panpina, bertzetan egiazko gizon apaindua, baina denetan lau gizonen tartean jasandako plataforma batetan eramana izaten da, ilunabarrean, suzirien argipean. Modu honetan herri guziko karrikak korrituz, txistu, ttun ttun eta atabalaren soinuz, tarteka "Olentzero" deitutako abestia hala nola garaiko bertze abesti batzuekin kantatuz.

HERRIKO BESTAK.- Hamabortz herriek ospatzen dituzte beren herriko besta nagusia egun berezietan, Iruiteko herriak emate dio hasmenta Maiatzako hilabetean eta Azaroako hilabetean akitzen dira Gartzingoekin.

IOIAK.- Baztanen ere ekintza seinalatua dira eztaiak ospatzen diren egunak ber bertso eta musika bereziekin ezkon berri endako "Ioiak" izena hartzen du.

BAZTANDARREN BILTZARRA.- Hamabortz herrie batean ospatzen duten besta, Uztailako hirugarren igandean edo Abuztuko azken igandean. Egun honetan, herri guztiak biltze dira Elizondon, goizeko hamabietan, herriek parte hartzen dute beren karroza edo orgarekin desfilean, gero elkarrekin bazkaltzen dute eta bestak atsalde guztia jarraitzen du. Baztango dantzariek, musikariak, abeslariak, bertsolariak, artisauak, margolariak, etabar, parte hartze dute. Jendea, egun horretan Euskal Herri guztitk etortzen da parte hartzera.

DANTZARI EGUNA.- Azken urte hauetan Arizkungo herrian ospatzen da "Dantzari Egu na", egun horretan bertze herriren batek dantzari talde batek ematen du bere saioa

MUSIKAKO TRESNAK:

Mutil dantzak.- Txistu, ttun ttun eta atabal doinua.
Irri dantzak.- Txistu, ttun ttun eta atabal doinua.
Sagar dantza.- Txistu, ttun ttun eta atabal doinua.
Soka dantza.- Txistu, ttun ttun eta ataba doinua.
Gaita.- Klarintete, akordeoia eta ataba doinua
Gaita.- Fanfarre, edo txaranga doinua.
Gaita.- Gaita deitzen den musika tresnarekin.
Erreginak.- Bertso eta panderetaren laguntzarekin.
Ioiak.- Bertso, txistu, ttun ttun eta atabal doinua.
Inauteak.- Akordeoia, txistu, ttun ttun atabal eta zanbonbarekin.

BERTZE OHAR BATZUK:

Kantuak eta partikularki bertsoak badut beren garrantzia Baztanen. Artisauek en garrantzia haundia daukate, bereziki esku lanak.

Eskopeteroak gizon hutsak dira

Goizeko 7ak dira, zeruan azken izarrak, beren dirdir goxoak emeki-emeki[1] gure begietatik aldenduz doaz, eguzkiaren lehen diztirei lekua utziz. Urrunera mendi tunturrek ortze[2] gorriarekin batera marrazki zoragarria eskeintzen digute, bitartean haizegoak[3] nire kopeta izerditua lehortzen iharduten du.

Halako batetan "xistu" bat entzuten da eta denak beren ehiza postuetan altxatzen dira, hamarren bat segundu ez dira pasatu eta, eskopeten tarraten ohiartzuna mendiko zoko guztietan entzuten da.

Lau usok beren beharrezko bidaia ezin izanen dute sekulan ere gehiago egin. Lumak haize epelak airean kontzen ditu bizirik gorde nahian, baina ez, bizia lurrean dago heriotzarengatik aldendu, urrundu nahi du, eginahalak egiten ditu bizia mantentzeagandik, naturak berak hala erraten bait dio.

Usoaren gorputz odoltsuari ehiztariaren hatzaparrak lotzen zaizkio etsai haundiena duen kafrina bezala. Usoa geldirik dago, begi erneek beldurra adierazten dute baina hala ere geldirik, ez daki zer gertatuko zaion baina kezkati sentitzen da.

Bapatean[4] barneko erraintetatik[5] azken indarrak ateratzen ditu ohartu bait da heriotza bere lepoz bihurtzen hasia dela. Azken arnasa hartzen du, bizia galdu du, baina inoiz ez du jakinen bere hiltzailea munduko abereetatik[6] arrazoidunena izan dela.

Ehiza bai ehiza ez, aspaldiko demanda dugu afera hau. Batzuk, honen gain solasterakoan, beren arrazoinamenduak ematen dituzte, bertzeek, berriz hauen arrazoiak deusezten dituzte berehalaxe koerentzi eta irrazionaltaz har daitezkela baieztatuz[7].

Baina zer da ehiza? Iadanik harri aroan gizakiak[8] ehiza egin behar zuen beraien superbizipena galdu nahi ez bazuten bederen.





Abereen artean indartsuena garaile ateratzen zen, Naturak ezarritako[9] legearen beharrak eraginduko[10] zuen azkarrena, indartsuena aintzinat ateratzea, gisa honetan ekosistemaren oreka[11] ziurtatuta zegoen baina Natura ingurugiro batetan.

Gizona bertze abereekin batera ingurune honetan murgildurik zegoen eta superbizipenerako[12] ehiza egitea beharrezkoa zuen janaria. Hasieran arteen bidez, gero harrizko gezi[13], lantza eta armak eginez lortuko zuen bere espeziaren iraupena.

Garai hura pasatuta, gizakiaren garapenak[14] bizitzeko era edo formaren desarroiloa ere bultzatuko zuen. Hasmentan ehiza egitea Naturaren lehen legeen barnean egon bazen ere, mendeetan zehar[15] gizakiaren beharrak ez ziren superbizipenari bakarrik mugatuko, ia ez zen beharrezkoa ehiza egitea bizitzeko. Une edo momentu honetatik gizonari ehiza, Naturaren legeen arauetatik[16] kanpo gelditukо zitzaion, bertze animalien legeetatik baztertu egin zen, horrela gizonak berak, jarriko zituen bere arauak Naturarenetatik bereiziz.

Baina zer da Natura? Zer zentzu du animalia baten bizitzak? Zer da ekosistema? Zer da...?

Noizbait ere egin ote diote ehiztariek beren buruei horrelako galderarik? Noiz?

Txoriaren bizi alaitsua eskuko hatzak gatilua zapatzen duen unean tristezian bihurtzen da, txoriak ez du gehiago gure mendi basatietan kantatuko. Bere kantuak eztanda[17] idor batek betirako ixileraziko ditu eta txoriaren gorputza larreko edozein zokotan gelditukо da usteltzen, horrela bere kolorezko lumek ez dute gehiago zeru garbian marraztuko[18].

Kantu batek dion bezalaxe:

Nik natura maite bait dut,
bera osoa, bera osoa.

Akaberaren kontra bait nago,
bizitzaren alde bait oro[19].

Ehiztariak gizon hutsak baitira,
berdin zaie amorio ta erio.

Gure munduan justizia eskatzen dute,
eta mendietan dira hiltzaile.



Baina ehiztariari zer axola zaio hau, erak ez daki, ez du deusere konprenitzen aturaren bizitzaren berri. Nonahi ikusten itugu "eskopeteroak" ajataka baietz-ezetz xoria bota apustuak egiten, ingurua kar-utxoz eta zikinkeriaz estalirik dutela. er dakite horiek Naturaren armoniaz, zer akite animaliarekiko maitasunaz? Deus-e-er-ja, hori da nire erantzuna.

Ehiza botereen[20] beharrak eragindako gauza a, gaur egungo armamentismoak negozio ga-antak dakarkie boteredunei. Horiei ez aie axola espezi bat desagertzen bada e-e beren armak saltzen dituzten bitartean ontent daude, ez dira kexatzen.

Ehizak mugitzen duen dirutza sinesgaitza a, bataz bertzeko (kartutxo, lizentzia, otoa etabar) berrogeirenbat mila pezetako astua suposa dezake ehiztari bakoitzak rtean zehar gasta ditzakeenak. Nonahi i-us ditzakegu pista tzar batzu mendian arna irekiak, erreztasun guztiak behar ituzte nonbait gaurko "eskopeteroak" be-en "base logistikora" iristeko eta beren gerla pribatua jarraitzeko. Baina nola kontzientzia ditzakegu ekosistemaren oreka arriskuan dagoela? Nola adierazten ahal diegu hiltzen dituzten animaliek, berek bezala bizia daukatela? Eta nola oharterazi diezaiekegu gizona, bere jokabidearekin[21], animaliatatik animaliena, irrazionalena eta etsaiarik handiena dela.

Gizarte hau ez badugu aldatzen, heziketa hau ez badugu jorratzen eta iraultzen, gizakiak gizaki hutsa izaten jarraituko du eta irrazionaltasun maila[22] batean.

Sentimentu hau adierazten duen olerki[23] bat dugu honako hau:

"Zure akatsik haundiena, ehiztari,
Ez da ehizaren falta,
Ez da diruaren eza,
Ezta denbora ere.
Zure akatsik haundiena, ehiztari,
Zure baitan dago".

MATTARI

1.- EMEKI=poliki
2.- ORTZE = firmamentoa
3.- IHARDUTEN = aritzen
4.- BAPATEAN = derrepente
5.- ERRAINETATIK = entrainetatik
6.- ABERE = animalia
7.- BAIEZTATUZ = afirmatuz
8.- GIZAKIAK = "ser humano"
9.- EZARRI = inposatu
10.- ERAGINDUKO = influituko
11.- OREKA = ekilibrioa
12.- SUPERBIZIPENERAKO = superbibentziko
13.- GEZI = fletxa
14.- GARAPENA = desarroiloa
15.- ZEHAR = barna
16.- ARAUETIK = normatik
17.- EZTANDA = esplosioa
18.- MARRAZTUKO = dibujatuko
19.- ORO = guzti
20.- BOTEREEN = podereen
21.- JOKABIDE = konportamentua
22.- MAILA = nibela
23.- OLERKI = poema

Joan zen uda eta negua heldu da...

San Simon eta San Juda!!!. Ez baletor hobe... Zergatik? ez, ez gaitu ikaratu behar abesti herrikoi horrek dioen bezala. Gaur egun Negua ez da gizartearentzat zailtasuna, iluntasuna. Naturarekin kontaktuan egoteko, elurrarekin jolasteko eta abar egokia da, urtearen ziklo bat gehiago ez bait da.

Herrietako bestak eta udako patxarak bukatu direla? ba..., gizartea ederki arduratu zaigu horretaz, edo hobe erranda, ongi ezagutzen ez dugun sistema oligarkiko hori. Horretan ados jarri dira agintari, militar eta kleriko guztiak. Ba begira, hasi Ama Birgina eguna dela, Konstituzio eguna, Navarrro eguna, Eguberriak, Urte Berri-zahar, Errege, besta pila daukagu negu bizi bizian konsumo gizarte horretan ongi atrapatzeko. Batzu erligio bestak bertzeak instituzionalak; gizarteak betidanik, artzaroetik, sekular bestak izan arren, Inauteriak alegia.

Baina nik Eguberrietaz aipatu nahi dut hemen, opor luze hauetaz, hemen ikasle eta langileek jai izaten ditugun egun hoietaz. Bestak edozein egunetan ongi datozela ez daiteke inoiz uka, baina kontutan eduki behar dugu ere egun hoietako jornalak ez dizkigula inork erregalatzen, nahiz eta egun hauetan bereziki soldata extra hori bere pikareska guztiarekin oparitu. Alderantziz, sistema honek ongi aski prestatu dizkigu egun hauek gure sosak berenganatzeko. Kalean jende ugari erosketak egiten, eskaparateak kolorez eta argiz beterik, gauza ezbaliagarriaz eta garestiaz. Epe hau pasa ondoren zu kilo gehiegirekin eta ordu guztietan bikarbonatorekin tripasaikeriagatik eta makurrago sakelak hutsik Urtarrilako aldapa hori ezin igoz. Gastu munstro hauetaz aparte etxea ongi gelditu behar aurpegi ona jarriz eta pozik zaudenarena eginez, zure guraso edo familia haundi horrekin, osaba, izeba, kuinatu, iloba eta abarrekin. Erregaluak jasoz eta ordainak itzuliz, telebistaren aurrean iragarkia entzuten duzun bitartean, "vuelve, a casa vuelve por Navidad..."

Ez zaizu gogoratu Eguberrietan mendira joatea? Zihur baietz, zihur gogoratu zaizula besta hauek montaje haundi, txar eta aguantaezinak direla. Zihur zure familia gutti inporta zaizula eta ez bada horrela ikus itzazu bertze garai batean, edo hobe erranda, urtean zehar maizago agurtzazu konpromisuko bilera horrekin engainatu ordez.

Ba, begira, agian ez zitzaizun inoiz gogoratu montaje honen aurka aktiboki parte hartzea; ez kolaboratuz berarekin. Ez itzuli Eguberrietan eta zoaz mendira edo bidai bat egitera.
Ikusiko duzu itzultzerakoan zein pozik aurkituko zaren eta areago Urteberria hasieran ikusten diren aurpegi ilun eta hutsaren sensazioa ez duzu izango.

GABONAK

ZUGARRAMURDI
1608. urtean

Zugarramurdi herri lasai eta normal bat zen 1.608. urtean beste inguruko edozein herri bat bezala. Hori bai, ia mila seirehun eta gutti urteetan hasiak ziren aditzen handik eta hemendik berri arraro batzuk, batez ere Lapurdiko aldetik heldu zirenak.

Erraten zen ez dakit zein herrietan sorgin bat harrapatua zutela; kasu gogorra eman behar zela gauaz ibiltzean agertzen ahal zirelakoz jende txar batzuk zuri gaizki egitera; baita ere erraten zen sorginak gauaz biltzen zirela bere Jainko Deabrua agurtzeko beren akelarreetan eta gau horietan ibiltzen zirela landa eta baratzetan barna belarran, fruituak eta landareak ondatzen; eta ez baldin bazinuen zure etxeko atean gurutzen bat paratzen arriskatzen zinela sorgin bat etxean sartzea.

Holakoak aditzen hasiak ziren garai hartan, baina ez dakigu jendeak sobera inportantzia ematen ote zion afera huni, Maria Ximeldegi ailegatu zen arte.

Maria Ximeldegi 20 urtetako neskatxa bat zen, eta berez Zugarramurdikoa izanez bazituen lau urte bere familiarekin Ziburun (Lapurdin) bizi zela; baina 1.608. urtearen abenduan berriz bueltatzen da Zugarramurdin bizitzera.





Eta hala, Maria hasi zen kontatzen nola izana zen bere bizia Lapurdin bizi zelarik. Eta pixkanaka pixkanaka hasi zen ere beste gauz beldurtsu batzuk erraten: ez zitzaion batere inporta kontatzea nola bera, Maria, garai batean sorgina izan zela baina hori bai, berriki urrikatu zela eta berriz kristautasunera bildu zela. Gero ez zen hemen gelditu bere berriak kontatzean, eta jakin arazi zuen Zugarramurdin ere egiten zirela akelarreak eta bera bi aldiz izana zela haietan.

Orduko jendea hasi zen ia eskandalizatzen eta izitzen, beste batzuk ere seguraski kontent jarri izanen ziren. Eta orduan ia Mariak bukatu zuen bere istorioa esanez Zugarramurdiko akelarreetan ikusiak zituela herriko jende batzuk, eta hola jakin zen hau eta hori eta hura... sorginak zirela.

Batzuk Maria sinesten zuten, beste batzuk ez, eta alde batetik Mariak erraten zuenagatik eta beste aldetik herriko jendeak presionatzen zuelakoz, badakigu 1.609 ko lehenbiziko egunetan Zugarramurdiko elizan bildu zirela 50 jende pastuxeak 9 herritarren sorgin konfesione publikoak aditzeko.

Jende hauek beren auzokoen aintzinean erran zuten baietz, sorginak izanak zirela eta gauza txarrak eginak zituztela baina handik aurrera juratzen zutela onezko jendeak izanen zirela eta eskatu zioten herritarreri barkatzeko.

Hola egin zen, eta guk pentsatzen dugu seguraski gauzak hola gelditukо zirela norbaitek ez baldin bazuen inkisizionea abisatu.

Eta hola, ez dakigu nork, bainan norbaitek abisatuz urtarrilaren lehenbiziko egunetan agertu zen Zugarramurdin inkisizioneko komisario bat. Hunek interrogatu zituen konfesione publiko hartan izan ziren zortzi gizonak eta detenitu eta Logroñorat eraman zituen lau andre, sorginak zirela erranez. Hauek urriaren 7an Logroñorat ailegatzen dire eta han konfesatzen dute dena, sorginak zirela eta abar.

Gero iduri du herrian beste gainerako sorginak beldurtuak gelditu zirela eta hauetatik 6ek deliberatzen dute Logroñorat joatea eta han erran berek herriko elizan konfesatu zutena, dena gezurra zela eta jendearen presioaz hala errana zutela.

Baina Logroñon ez diote sinesten eta beste sei hauek ere preso sartzen dituzte. Bainan 6 hauek bere egia mantentzen dute oraindik nahiz preso izan aunitz hilabetez.

Bainan ia badakigu irailaren lauean (9 hilabete geroago) konfesatu dutela sorginak zirela.

Bitartean urte bereko abuztuaren 19a ailegatzen da Zugarramurdira D. Juan del Valle Alvarado inkisidorea.

Alde batetik, normala zen inkisidore bat herri batera ailegatzea, zeren inkisizioaren metodo bat izaten zen noiz behinka herrietara inkisidore bat bidaltzea oraitarazteko jendeari zein ziren herejiak bezala kontsideratzen ziren faltak, eta jakin arazteko ere bai norbaitek herejia hauen gain zerbait baldin bazuen salatzeko, obligazio zela inkisizioari parte ematea, bestela elizak exkomulgatzen ahal zuelakoz. Gauza hauek erraten zituen dokumentoari "edicto de Fe" deitzen zitzaion.

Holaxe ba, inkisidorea ailegatu eta ondoko igandean, Zugarramurdiko apezak, Fray Felipe de Zabaletak, leitzen du pulpitotik "edicto de Fe" dokumentoa, eta presentatzen dire inkisidorearen aurrean Zugarramurdiko 5 neska gazte erranez berak sorginak zirela eta kontatzen zer egiten zuten akelarreetan, nola deabrua zuten Jainkoz eta holako gauzak. Baita ere inkisidoreak Maria Ximeldegi (sorginen afera jakin arazi zuen pertsona) interrogatu zuen.

Iduri du sorgin berriek konfesatzen dutena eta Logroñon zirenak konfesatzen zutena, dena gauza berdin-berdintsua izan zela. Hori izaten ahal zen alde batetik Logroñon eta Zugarramurdin bildu zituen konfesioak pertsona berdina izan zelakoz, eta orduan errateko moduan, pentsatzen ahal da inkisidore honek pittat berak gidatu zituela hau edo hori erratera. Beste aldetik ere pentsatzen ahal da ordurakoz Zugarramurdin ezagutzen zirela Lapurdi aldetik etorriak ziren sorginen buruz aunitz istorio eta afera.

Eta horrela, azkenean D. Juan del Valle Alvarado inkisidore jaunak Logroñora bidaltzen ditu beste 15 lagun detenituak. Gero inkisidore hunek Lesaka alderat segituko zuen, handik Donostirat eta azkenean Logroñorat bueltatzen da bere atzetik aunitz herrietan inkisizioneko komisarioak nonbratuak utziz, haien artean famatua izan zen Berako apeza D. Lorenzo de Hualde (Lapurditarra), 5 hiritako "sorginen" kontra eraman zuen borrokarengatik.

Komisario hauek beren herrietan inbestigazioak egin ondoren Logroñorat bidaltzen dituzte detenituak, 1610 urtearen Martxoaren 3an, beste 16 pertsona, Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Errenderian bilduak. Hauetatik 6 juzgatuko zituzten Zugarramurdi eta Urdazubiko 25 pertsonekin 1610. urtearen azaroan.

Eta erresumen txiki bat eginez ikusten dugu 1.608. urtean hasi zela sorginen kontrako prozesua eta 1.610. urtearen azaroan bukatuko zela. Ordurako 31 pertsona detenitu haietatik, 13 kartzela beran hil ziren beren juizioa ikusi gabe.

Beste aldian (heldu den "Ttipi-Ttapan") bukatuko dugu kontatzeaz zein izan ziren pertsona hauei egin zizkioten akusazioak eta baita ere zein izan ziren haien sententziak.

Zorionak Almandozko Manueli

Bai, zuri Manuel. Aurreko egun batetan autobusean zure aurrean nindoala Narbarten igan zen neska bati ematen zenizkion aholkuak entzun nituen. Autobusa leporaino beterik zihoan eta zu hitz egiten ari zinen emakume batekin ozenki xamar, badirudi zure ohitura dela. Emakume hori jeitsi zen baina autobusean oraindik jendea zutik zetorren eta zure ondoko aulkian exeri zen lehen aipatutako neska hori.

Gu parrezka gentozen zuen elkarrizketa entzutean, zu adar jotzen ari bait zinen galderak egiten eta abar... Neskak gazteleraz erantzuten zizun eta zuk galde egin zenion ea ez zekien euskaraz; berak berriz ezetz erantzuten zizun, ulertzen zuela baina ez zekiela hitz egiten. Zuk, txantxetan ariko zela adierazten zenion eta besteak ezetz. Azaltzen zenion nola izan zitekeen 17 urtetako narbartear neska batek euskaraz ez jakitea, etxean jakin arren eta zure harridura azaltzen zenion Valladolideko jendeak euskaraz jakitea eta Narbartekoak alderantziz ez. Euskararen baliagarritasunaz bi adibide jarri zenizkion, bata Baztango mediku lanpostu batena eta bestea Doneztebeko guardarena. Lehenengoaretaz erran zenion bertako mediku batek ez zuela lanpostua bete euskara ez jakiteagatik eta Valladolideko mutil gazte batek bete zuela lan hori euskara jakinez.

Animatu zenuen gazte hori euskara ikastera, idazten eta irakurtzen, gaur egun aukera ederrak baduela horretarako adieraziz. Parrez gentozen zure aurrekoak, baina neri oilo larrua atera zitzaidan zure aholkuak entzuterakoan eta aukera hau aprobetxatu nahi dut zu agurtzeko eta zurekin bat natorrela azaltzeko. Benetan poztu ninduen jakiteak erreka honetan zenbait euskaldun eta zale oraindik bagaudela ikusteak, nahiz eta kontrakoen fama eraman lau urtetik behin azaltzen ditugun emaitzengatik.

Zure izena jakin izan nuen Almandozera heltzerakoan gidariak aipatu zuelako zu bertan jeisterakoan. Agian falta zaigu gure nortasun mamaitzea abertzale azaltzeko, baina helduko da garaia.

HONELAKOAK BAGENEKIZKIEN

Saia gaitezen berreskuratzen... erabiliz

ure hizkuntza mendez-mende eta ahoz aho transmitituz joan den ondasuna dugu. Bizirik iraun badu, belaunaldi bakoitza re aintzinakoengandik jaso duen ondarea rdetzen saiatu delako izan da. "Amaren larra, haurraren janari" baldin bada, urasoen hizkera, gure ikasbide eta abesgarri" dela erran genezake. Kate hau utsiz gero gureak egin du.

dugu erran nahi horrekin nahikoa denik, ina bai behar beharrezkoa. Horren ondotik rtze ahalegin haundi bat egin beharko tzateke, jendea alfabetatu eta euskara ain arte gutti landu diren eremuetara paltzeko. Eta hara non aurkitzen garen hengo iturrietara jo beharrean, erdararen osioa dela medio erdi galduan dauden tzak berreskuratzeko.

Adibide gisa para ditzagun zenbait hitz:

HARRASKA:
Sukaldean ontziak garbitzeko lekua. Gaur egungo "fregaderak" ez baina lehengoak harriz eginak izaten bait ziren. Ez al da normala lehengo moduan deitzea hitz jator hori erabiliz?

HARRIKOA EGIN:
Lehen errandakoaren ondorio garbia. "Ontziak fregatzea" edo "harrikoa egitea" gustatzen zaizu gehiago?

HAREATU:
Zola garbitzeko harea edo legarra erabiltzen zen. Beraz "zola fregatu" erran beharrean "hareatu" erran genezake. Bertze zenbait tokitan, "hondartu" erabiltzen dute.

GAZTIGATU:
Galtzeko zorian dagoen hitz jator jatorra. Zerbaiten berri eman edo "abisatu" adierazten du. "Bilera bat dagoela gaztigatu didate"

ZILE IZAN:
Debekatua ez den gauza zile da. "Lehenago ez bezala gaurregun euskaraz hitzegitea zile da"

EITEA:
Itxura, antza. Ez bakarrik antzekotasun fisikoa, baita keinu eta espresioena ere. "Horrek bere aitaren eiteak ditu"

Horra hor adibide batzuk. Eginkizuna denen esku dagoenez, dei egiten dizuegu irakurle guziei, galtzear dauden euskarazko hitzak jaso eta TTIPI-TTAPAra igortzeko. EKARPENIK BALIOTSUENARENTZAT SARIA IZANEN DA.

BORTZIRI ETA MALDAERREKAKO A.E.K.

HARA !

Nafarroako mendietan bada arraza arraro bat, egunero gure ondoan egoten dena. Hasi gara pixka bat aztertzen, eta harrittuak eta perplejuak geratu gara, beren sintomak ikusi ditugunean.

Badirudi arraza honetan tribu aunitz elkartzen dela. (Kirolaliak, mozkorrak, mojak, gorrak, tripetsuak eta oraindik identifikatu gabeko espezie bat).

Dirudienez beren tribuetan ez dute zorroa betetzen, eta klase baten aitzakian honara etortzen dira beren hortzak mugitzera, ikusten duten guztia jaten dute, hemen gaude lotsatuta; ez dakigu noiz arte gauden bizirik.

Soinua arraroak entzuten ditugu, eta dardariz mahai azpian sartzen gara.

Eskerrak orain beren generala metodo berri batekin hasi den euskara irakusten, kulturgintza dela eta, ilargira joateko asmoa omen dute. Hau da, orain arte buruakin ilargian zeuden eta orain hankakin egonen dire, g enteratu garenean "a toda hostia" hasi gar trineoak prestatzen (tribu bakoitzarentza bat, elkarri autxikirik ez egiteko).

Espero dugu bidai hori abudo egitea, ber tzela gure etorkizuna beltza izango da.

Hurrengo alean kontatuko dizuegu zer berr izan dugun. Mesedez adi egon, laguntza beharko dugu eta S.O.S. , S.O.S. , S.O.S.

Behin batean baziren bi katrakutxintxa pinu batean. Bat jakintsua zen eta bestea berriz tontolapikoa. Jakintsuak Pantxo zuen izena eta bertzeak berriz Pantxito. Pantxo beti lanean aritzen zen eta bertzea berriz lo bere ohean. Baina behin batean Pantxo haserratuta alkatearengana joan zen zer pasatzen zen esatera, baina alkatea bere zorro handiarekin eta bere piparekin kasorik ez zion egiten. Orduan juezarengana joan zen baina honek ere ez zion kasorik egin.

Orduan etxetik joatea pentsatu zuen, bere gauzak hartu eta paper bat paratu zion Pantxitori zera erranez: Agur Pantxito, ni beti lanean eta zu lo ohean, Agur!

Edurne Mikeo Zugarramurdi
(Aurtiz)

ITSU ZAHARRARI IZUAK

GALDETZEN ZION...

Itsu zaharrari izuak galdetzen zion
ea nire herriak geroa izanen zuen.
Eta inoiz ahitzen den algara
ezpainik gabeko ahoak hasi zuen.

Argiaren aizkora buruetan.
Karrika sutegi bihurtzen zitzaigun.
Haizetxo pixka bat itsasotik
ataritaraino supituki heltzen zen.

Begi zuriak ez ziren dagoeneko
mintzatu zen beldurraren aurrean.
Orain urratsak aldentzen dira
nakosta erne geldietan zehar.

Berrartzen genuen lo euskorra
-idi, suge, basurdearen kontra-
gure ontasunik kementsuarena,
gure askatasunik leialarena.

"Sineraren liburua", 1963
Salvador Espriu



NOIZEAN BEHIN BEHARREZKO

ETA NAHITAEZKOA DA...

Noizean behin beharrezko eta nahitaezkoa da
herri batengatik gizon bat hil dadila,
baina inoiz ez du hil behar herri oso batek
gizon bakar batengatik:
oroi zaitez horretaz beti, Sepharad.
Elkarrizketaren zubiak tente izan daitezen egizazu
eta zure semeen arrazoi eta mintzaira desberdinak
konprenitzen eta maitatzen saia zaitez.
Euria emeki emeki eror bedi ereintzetan
eta airea pasa bedi esku zabalaren antzera,
leun eta oso onuragarria, soro hedatuen gainetik.
Sepharad bizi bedi eternalki
ordenean eta pakean, lanean,
merezitako askatasun zailean.

"Zezen larrua", 1960
Salvador Espriu

Joakin Balentziak itzuliak



Erne nengoelarik egindako ametsa

Unkimenaren sentsazioak plazer ematen digu
Gozamenaren ametsa, zu zara, andrea
Sentibera eta isila
Zure gorputzaren soiltasunak libertatearen deia adierazten du
Bihotzaren itxura dauka zure aurpegi dizdiratsuak
Liliazko letain zuriak ikusten dizkizut
zure ezpain erotikoak irekitzen dituzunean,
Zuriñe.

Zure beso luze horiek eta behatzaren ukidak
nere gorputzari lasaitasunarik hoberena
sumarazten diote.
Bilutsirik emakume, beste bilusirik aurkitu ezean
logurearen doinuan lo hartzen du
Larru gorririk jaio bait ginen.

Zure bularraren hizkera isila sumatzen ez dudanez gero,
eztitasunik gabeko begietan
negarberrituko zait lagun lirain hura.
Lepoa inguratzen dizun koilare zilar kolorekoak,
kriseiluaren argia ematen du.

Zure magaleko berotasunak logurea zekarzkidan herenegun.
Gaur hotzikarak amesten ditut zure berotasuna oroitzean.
Esku larru xamurrak nahigabe gozoa irekitzen dit sabel azpian.
Kilikadarik iraunkortsuenak irakur dezakegu andere nere irrifarrean.

Oh! ahorik ederrena irekitzen zaigu
etzanda bilakatzen garenean emeki, emeki.

Sorbaldatik ohinetara laztanduraz hornituko gara
goizaldeko lainoak leihoaren zirrikitotik
sartzen zaizkigularik.

Lumazko almohadak ohinetara bota ditugu
eta besoak besoen gainean
jolastuko dugu ordu batzuz.

Ilearen ukidak
nere saietsak kilikatzen ditudanean
goibel gozo bat sortu arazten du.

Ze hurbiltze gozoa Zuriñe!

Goizaldeko gozamena nere lagun haren ondoan.
Besarkada borobilak, musu luze aberatsak
betetzen dute nere gose-egarri haundi hura.

Hau bezelako goiztiri erotiko gutxi
izango ditut
nere bizian!

Askamin
Arantza, 1986 ko Uztailaren 14a.

HEMEN DA NEGUA

Hotzak hasi dira ta
hasi gera bildurtzen
udako erropak kendu
ta negukoak jazten
goizean jeiki eta
dardarka hasitzen
sùtondoan jarrita
eskuak berotzen.

Baserritarrak danok
guztiok batera
txerria gizendu ta
bizia kentzera
amona barriñuarekin
odola hartzera
ta gero bukatuta
denok gosaltzera.

Eguberriak hemen!
gu gaude kontentu
Donostira joan eta
loteria hartu
orain arteño ez zait
ezerrez tokatu
pixkat erori ezkero
nitzake kontentu.

Hostoaz beteak daude
alderdi guztiak
beste itxura daukate
Goizuetako mendiak
loreak ximeldu ta
etxera ardiak
ikusi beharrak gaude
nahiko komeriak.

Agurra bahihoa
zuentzat poz pozik
berriz ere bertsoak
egingo ditut nik
hementxe idazten dut
txoko honetatik
laister ikusiko gara
Jainkoak nahi izanik.

Mari Jose Zugarramurdi.



GAZTE ZU

Soro zabalaren bazterrean
pentsakor ikusten zaitut,
zure minaren giltza, nik dut.
Bai, ni, alaitasunaren igitaia,
lorearen sega zorrotza,
ondoko esku mehar eta hotza.
Borobil handi honen erdian
itzal beldurgarriaren argian,
bakardadearen lagun,
urduri bezain lasai gau eta egun.
Xorikumearen gisa,
hegoak ireki nahiez,
askatasunari baietz esanez.
Usoari sokak kendu!
Ez lotsatu, ez beldurtu!
Ez atzeratu, ez nekatu!
Zu zara denentzat ederra,
zu zara makal lerdena,
gure herriko haritz sendoa,
guztien betiko itxaropena.

A.A.



NERE ESPERANTZA

Elur gardenaren gainean gaztetasuna landuz,
eguzki gogorraren menpean sendotuz;
egur izekituaren antza beti alai,
baso txuri atseginean zure zai.
Zure alboko izar elurtsua izan nahi nuke,
bien lore emankorra lortu arte.

Gure itsaso sutsuan murgil gintezke,
nere gaurko mendi zurbila higatu baino lehen.

A.A.

UTZ NAZAZU PAKEAN!

Utz nazau pakean,
ez etorri niregana istorio estrainioak
kontatzera,
badakidalako
nondik etortzen diren jainko horiek,
hain anonimoak,
hain ederrak,
hain objektiboak.



Beren asmo asasinoak
ezagutzen ditut,
erretorikaz mozorroturik,
hitz haundiak oihukatuz
heltzen direnean,
esaldi barrunbatsu bikainak
txoriak erotzeko
eta tximeletak izutzeko.

Lainoa
eta herri honetako
lurtzoru malkartsua
ezagutzen ditut
eta ez dut malkorik behar
nire oinazea adierazteko.

Utz nazazu pakean,
ez etorri niregana istorio estrainioak
kontatzera,
badakidalako
nondik etortzen diren jainko horiek.

J. B.

AMODIOA EZKUTATZEN DA

Amodioa ezkutatzen da
tela preziatuen artean,
lotsati, umil;
gauean da jabea,
oihurik gabe,
iluntasuna menperatuz.
Pizten da argia gero
eta nekez ikusten da
izan dena.
Porrot eginda,
zuhaitz hautsia
eta zulo beltza
ixten da berehala,
kupidarik gabe,
ederra, harroa,
bere fruitua
helduz gero.

J.B.

MINTZATZEN HILARGIA DENEAN

Hilargia mintzatzen den bakoitzean
ia inork ez dio sinesten
gezurtien sasoia gaua omen delako.
Baina hilargiak denaz irri eginez,
zurbil eta sotil,
bere ordua lasai itxoiten du.

Orain zeruari begira nago,
loegin gabe, erne,
errebelazio handiaren zain;
hilabetea mintzatuko da
eta leial gutxik sinestuko diogu.
Gaur gauean bere gezur bitxiak jaso
eta, beren sorburu likits eta ilunez
hitzik ere egin gabe,
egiak bezala aurkeztuko ditugu gero.

Hau da gure sekretua, oi maitale,
inori ez diogu kondatuko
nondik ateratzen ditugun egiak.

J.B

ERREZETAK

GURINEZKO PASTAK

OSAGAIAK

- 250 gr. gurin
- 250 margarina
- 250 gr. azukre edo ezti
- 3 gorringo
- flan sobre txiki bat
- altxagarri sobre erdi bat
- kilo bat irin integrala

NOLA EGIN

Katilu haundi batetan sartzen ditugu gurina, margarina, gorringoak eta azukrea, eta ongi nahasten dugu dena. Gero botatzen dizkiogu flana eta altxagarria, eta pixkanaka, pixkanaka, irina, sendotu arte. Eransten ez denean, orea egina dugu.

Gero errodillo batez landu, fin fina ipini eta egin forma batzuk nahi duzun bezala. Labeko erretilua gurinez igurtzen dugu eta gainean jartzen ditugu gailetak, zuringoak pintatuak gainetik dirdiratsuak gelditzeko.

Azkenez apaintzeko nahi duzuna jarri, gindak, mahats-pasak ...

Orain sartu labean hogei minutu gutxi gora behera, eta eginak ditugu.

ON EGIN!

ESNE FRIJITUA

OSAGAIAK

(6 pertsonentzat)

- 3 gorringo
- maizena
- kanela adar bat
- Esnea
- Azukrea
- Gurina

NOLA EGIN

Jartzen dugu egosten litro bat esne kanela eta azukrearekin. Bitartean katilu batetan esne hotz pixka batean 100 gr. maizena urtzen da eta ongi nahasi ondoren gehitzen zaio esnea irakiten dagoenean. Esnea loditu arte gelditu gabe nahasiko dugu, eta bukatzeko bi goilarakada gurin gehitzen zaio eta fuente zabal batetara aterako dugu hozteko.

Hotza dagoenean moztuko dugu puska karratuetan, eta arraultze eta irinean pasatuko dugu, eta gero frijitu.
Beroak eta azukre pixka batekin gainean serbitzen dira.

ELIZONDOKO GAUESKOLATIK

SOPAKANAZ

OSAGAIAK

- Esne
- Kanela
- Azukrea
- Oiloaren gurina
- Ogia

NOLA EGIN

Egosi esnea kanelarekin eta nahiko azukrerekin.

Urtu oiloaren gurina zartain batetan eta gehitzen zaio esneari.

Egin puskak fin-finak ogiekin eta sartu esneari irakiten eta lasai lasai utzi egosten.

Kasu!! Ez sartu puska gehiegi bestela oso idorrak gelditukо zaizkizu. Normalki jendeari mamitsuagoak gustatzen zaizkio.

Goxoki hau neguan da tipikoa.

TORRIJAK

OSAGAIAK

- 400 gr. ogia (bezperakoa)
- 1/2 edo litro 1 esne (ogiaren arabera)
- 50 gr. azukre
- Eztia
- Kanela hautsa eta zotz bat
- 2 arraultze, limoi-azala eta olioa.

NOLA EGIN

Ogia hartu eta bi zentimetroko ogi-xerrak egin. Azpil batetan ipini. Bitartean esnea berotu limoi azal batekin eta azukre goilarakada batekin, dena egosi arte. Gero esnea epeldu denean ogi xerren gainean bota ogia blaitu arte. Orain hartu zartagina eta olioa berotu torradak frijitzeko. Bitartean ogi-xerrak arraultzeztatu eta frijitu alde bietatik. Denak frijitu ondoren zapore goxoa emango diegu gainetik eztia jarriz eta azkenean kanela hautsa eta azukrea.

LETRA ZOPA

Aurki itzazu inguru honetako zazpi mendi:

T	X	A	S	I	P	O	Z	S	A
X	E	K	A	I	T	Z	A	O	Z
I	T	X	I	B	A	I	K	O	I
S	A	Z	O	U	I	N	S	M	R
A	S	M	A	E	U	N	A	E	O
U	X	A	S	H	I	D	B	N	A
N	A	T	R	A	B	A	K	D	D
Z	E	A	P	I	S	E	M	A	N
O	L	I	G	I	X	A	J	U	E
I	G	E	L	U	X	T	I	R	A

GALDERAK:

1- Zenbat txapel irabazi du Retegik?

a- 8

b- 10

d- 5

2-Zenbat mozkorti da zure herrian?

a- nire herrian ez dago tabernarik

b- 50

d- 10.000

3- Noiz dira Oieregiko bestak?

a- Ez da bestarik

b- Abenduaren 25ean.

d- Sanferminetan

4- Zenbat muga dugu Baztan eta Bortziri artean?

a- 1

b- 5

d- 10

5- Zenbat herri osatzen dute Baztan, Maldaerreka eta Bortzirik?

a- 10

b- 25etik goiti.

d- 60

SOLUZIOAK:

1- a

2- ?

3- a

4- b

5- b



SILABAKA

JOKOA: Joko erraza edozeinentzat ere. Hainbertze silabaz osatutako HITZA bat asmatzea, ematen diren argibideei jarraituz.

(Gogoan izan: silaba bat hizki edo letraz egina dago; silabak kateatuz hitza osatuko genuke; eta hitzen bidez, esaldia).

Gaurko jokoan, LAU SILABAZ OSATUTAKO HITZA ASMATU BEHAR DUZU.

1+2+3+4= KIROL EKIPO EZAGUNA.

?	?	?	?	=KIROL EKIPO EZAGUNA
1.silaba	2.silaba	3.silaba	4.silaba	

Argibideak:

1. silaba+4.silaba=Txarraren aurkakoa.

2.+4= Botikak egin behar baina askotan egiten ez duena (gaztelaniaz).

1+2+4= Elizako abestia.

4+2=Ziminoak eta gizonak zerutara bidaltzen ibiltzen den amerikar taldea

3+2= Astoa igel, eta behia ...

4+4= Ama erdaldun bat bere haurtxoari kantari.

4+1= Itsasontzia, gailegoz,

1+2= Hartz emea, gaztelaniaz.

SILABAKA: 1+2+3+4= KIROL EKIPO EZAGUNA= "O-SA-SU-NA"

ETXEKO ORMEI

Zuek zergatik
ez duzue hitzegiten
hainbeste jakinik
eta beti ixilik
Zergatik ez nauzue laguntzen
zerbait esanik
ixilik baina hor
beti gogor eta zutik

Bele beltz

Baratzeko lorea

Garai batean uka,
haserre bukatu,
urteak pasa eta
berriz da saiatu.

Hasieran samurra
gero da gogortu,
baratzaren erdira
arrosa da sortu.

Ura beharra eta
zaintzen ez saiatu,
hain lore polita
bai ote ihartu.

Baratzean ez baita
jabea ezer aritu,
morroia negarrez ta
malkoak du piztu.

Orain dago itzala
sasoi eskasa du,
nola iraun arrosa
urarik ez badu.

Bai jabe, bai morroia,
elkar beharko du,
baratzaren erdia
sasia ez jabetu.

lotsati

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

Ttipi-Ttapa Aldizkaria
Alondiga Plaza Zaharra, LESAKA

POTROKILO

175 pzta

Imprime Garrasi. D.L. NA 1324/85